

hh
hik hasi

187



IKT-BLOK EGITASMOA • ITZIAR AGIRRE ETA JOSUNE ALBERDI •

0-3 ZIKLOKO HEZITZAILEEN FORMAZIOA • EUSKAL GIROTZE BARNETEGIAK

• AMELIA BARQUIN • IRRIEN LAGUNEN UDALEKUA • ASIER ALTUNA

Sar zaitez www.bukowski-tribua.com-en,
eta ezagutu Bilintx institutuko abenturak
eta kalenturak. Bertan egilearekin jarri
ahal izango zara harremanetan.



© 2014 Elkar - Lander Añón



San Ferminetan, Lesakan

JOHN ANDUEZA



elkar

www.elkarargitaletxea.com

aurkibidea



10
gaia

IKT-BLOK EGITASMOA

Ikasleak oinarrizko kompetentzietan trebatzeko estrategia da, Lizarra Ikastolan duela lauzpabost urte sortua. 3 urtetik hasi eta 16 urtera arteko ikasleentzat 26 proiektu osatu dituzte, ikasturte bakoitzerako bi. Ikasleei egoera eta arazo errealeak planteatzen zaizkie, gelan ikasitakoa modu praktikoan aplikatuz, erresolbitu ditzaten.



18
elkarrizketa

ITZIAR AGIRRE ETA JOSUNE ALBERDI

2003an sortu zenetik, pedagogia sistemikoa Euskal Herrira ekartzen eta hemengo errealitatera egokitzen dihardute Agirrek eta Alberdik. Espazio berri garrantzitsu bat ireki zaie orain: euskarazko prestakuntzarena hain zuzen. Lehen aldiz pedagogia sistemikoaren inguruko formazioa euskaraz egin ahal izango da, Hik Hasik antolatutako Udako Topaketetan.

5 editoriala

6 hizpide izan da

8 hizpide izango da

10 gaia

IKT-BLOK EGITASMOA, kompetentzietan trebatzeko

18 elkarrizketa

ITZIAR AGIRRE eta JOSUNE ALBERDI,
pedagogia sistemikoan adituak

24 0-3 zikloko hezitzaileen formazioa

28 esperientziak

EUSKAL GIROTZE BARNETEGIEN LAN-METODOLOGIA:
Barnetegia aukeren lekua da

32 ekarpenak

KOMUN BEREZIAK NESKENTZAT ETA MUTILENTZAT?
Amelia Barquin

36 galdeidazue

Zergatik da garrantzitsua hezitzailearentzat ahotsa ongi erabiltzen jakitea? KARMELE MURO

40 hik hasi-ren proposamena
IRRIEN LAGUNEN UDALEKUA

42 Atzeko atetik
ASIER ALTUNA

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostitzu, Arantazu Muñoa eta Iraide Baskaran. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Arantxa Urbe. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Uxue Ugartemendia. Diseinua: Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Hik Hasi. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2014-03-24). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzake. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

www.hikhasi.com

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SALA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eman diezaiogun hezkuntzari garrantzia



Harpide zaitetz, eta indartu ezazu hezkuntza komunitatea

-50 euro urtean jarrita 10 hik hasi aldizkari, ale monografikoak eta Euskal Herriko baliabide pedagogikoen gida. Horrez gain, prezio bereziak Udako Topaketetan, jardunaldietan eta argitaratzen ditugun gainontzeko materialetan.

-20 euro urtean ordainduta 4 Hazi Hezi aldizkari.

Bi aldizkariak hartuta, 65 euro urtean.

Duela bi urte agortutako CDa berrargitaratua



- Bidaietako jolasak
- Zotz egitekoak
- Zabuan kantatzekoak
- Txalotako jolasak
- Soka saltoan aritzekoak
- Txikientzako jolasak
- Korroan aritzekoak
- Gomatakoak
- Behatzen jokoak
- Taldean aritzeko jolasak
- ...

www.hikhasi.com

editoriala

apirila

Formula magikorik ez



Hezkuntzaren alorrari ere egun batetik besterako emaitzak eskatzen zaizkio, fruituak, irabaziak, etekinak, onurak... Irakaskuntzan, ordea, ezin da horrela jokatu: “Eguneroko lana egin behar da, eraikitzen joan, konstantziaz, luzarora begira jardunaz eta helburu handiekin, baina presarik gabe”

Hitzez hitz jarraitzeko moduko errezeta-liburuak nahi izaten ditugu maiz. Eskolako arazoak konponitzeko eta irakasleontzako jarduna errazteko egiteko balioko diguten jarraibide zehatzak. Prestakuntza saio ugari azaleratu ohi dira erantzun miragarrien egarri diren galdera eta zalantzak. Truku errazak bilatzen ditugu. Zailtasunen aurrean berehalako konponbideak, eta esfortzurik txikienarekin bat-bateko emaitzak.

Hainbat hezkuntza-teoria eta pedagogia-ildo daude. Hitz egiten da hezkuntza emozionalaz, giza konstruktibismoaz, eta pedagogia sistemikoaz; proiektu bidezko metodologiaz eta kompetentzietan oinarritutako irakaskuntzaz; hitz egiten da hezkuntza libreaz, pedagogia aktiboaz eta ikaskuntza komunitatez. Berrikuntza teoriko ugari egin dira azken urteetan eta orri asko idatzi dira. Irakasleok badugu hortaz nondik edana.

Baina eguneroko jardunean zenbateraino zaigu hori guztia lagungarri? Ez al gara sarri noraezean

sentitzen? Azken urteetan, hezkuntzan, nahasmenduan erori garela diote Itziar Agirre eta Josune Alberdi pedagogia sistemikoan adituek aldizkari honetako elkarrizketan, eta ezinbestean hezkuntzaren muinera itzuli behar izan dugula: haurra erdigunean jartzera, hain zuzen.

Haurra erdigunean jartzea. Behin eta berriz entzuna eta esana. Ezer berria ez. XX. mende hasieran haurraren zentratutako eskola aldarrikatzen zuten Steinerrek edota Freinetek. Montessorik, berriz, haurri arreta jarri eta bere erritmoan utziz gero, ez duela inoiz porrot egiten zioen. Antzeko zerbaitez mintzo zen Neill ere: haurraren berezko gaitasunez eta autorregulazioaz. Freirek oster, haurraren autonomian oinarritutako pedagogia jarri zuen bogan. Antzeko ildoan, Piagetek eta Vigotskik ere haurraren parte-hartze aktiboa azpimarratzen zuten ezagutzaren egituraketan.

Ados. Baina hori guztia lortzeko zer egin? Nola lortu haurra erdigu-

nean jartzea? “Kontua ez da zer nahi dugun, baizik eta zer egin dezakegun nahi dugun hori lortzeko”, hala dio Jesus Mari Goñi EHUko irakasleak aldizkari honetan IKT-BLOK egitasmoaren inguruan jorratutako gai nagusian. Eta hain zuzen ere, bere irudiko, nola horretan dago gakoa, hots, lortu nahi duguna erdiesteko jarraitzen den estrategian.

Baina, ez al gara sarri formula magiko bila hasten? Eta aurkitu ezan etsita, frustratuta, ezinean sentitzen? Gero eta azkarrago bizi garen gizartean, hezkuntzaren alorrari ere egun batetik besterako emaitzak eskatzen zaizkio, fruituak, irabaziak, etekinak, onurak... Irakaskuntzan, ordea, ezin da horrela jokatu, ez da go formula magikorik. Pertseberantziaz eta zentzuz, beste era batera jardun behar dela dio Goñik: “Eguneroko lana egin behar da, praktikoa izan, eraikitzen joan, poliki-poliki, konstantziaz eta desanimatu gabe, luzarora begira jardunaz, helburu handiekin, baina presarik gabe”.

hizpide

Prefetak Beskoitzeko ikastolaren aurkako salaketa kendu egin du

Beskoitzeko ikastola berria eraiki ahal izango da. Horixe jakinarazi die gutun bidez Frantziako Gobernuko ordezkariak Beskoitzeko Herri Etxeari eta ikastolako lehendakariari. Salaketa kendu dute eta ez dute auzitara joko.

2012ko abenduan Hendaiako ikastolaren eraikin berria legez kanpoko zela erabaki eta eraikitzea debekatu zuen Pirinio Atlantikoetako Pierre Andre Durand prefetak, eta hilabete gutxi batzuetara, 2013ko irailean, debekuaren itzala Beskoitzera zabaldu zen. Prefetak Beskoitzeko Herriko Etxeari jakinarazi zion ezin ziola ikastolari lurrik alokatu. Urriaren 25 ean ordea, prefetari muzin eginez, Herriko Etxeak ikastolari lur eremu

bat alokatzea adostu zuen. Horren ostean, urtarrilaren 24an prefetak auzitara joko zuela iragarri zuen, baina bi hilabeteren buruan atzera egin du.

Paxkal Indo Seaskako presidentea pozik eta gustura agertu da prefetaren erabakiarekin, auzipetze horren zentzugabetasuna agerian geratu dela uste baitu. Bestalde, lorpen horren atzean, herri mobilizazioaren garrantzia azpimarratu du, ikastolen aurkako erasoak salatzen egindako elkarretaratze eta manifestazioak ugari izan baitira.

Horrez gain, Frantziako Gobernuari gatazka berririk ez sortzeko deia egin dio Indok, eta konponbideak elkarriketaren bidez lortzeko eskua luzatu dio.



Eskola publiko eske Sopuertan

Lehen Hezkuntzako eskaintza publikorik ez duen Bizkaiko herri bakarra da Sopuerta eta horren aurrean, herritarrek eta hainbat kultur eragilek Lehen Hezkuntza eredu publikoan jasotzeko aldarria egin dute Bilbon.

Duela gutxi ireki dute haur-eskola publikoa, baina etapa hori bukatzean, San Viator itunpeko ikastetxea da Sopuertako haur eta gazteen aukera bakarra. Eredu publikoan ikasi ahal izateko Zallako eskolara joan behar dute, herritik 26 kilometrora.

Haur-eskola bera ere, gotzaindegiak Udalari emandako lurretan eraiki dute, baina Eusko Jaurlaritzak dioenez, lur horietan ezin da Lehen Hezkuntza eskainiko duen eraikinik eraiki, eskritoretan hala idatzita baitago. Gauzak hala, eta eskrituren irakurketa alde batera utzita, borondate eza dagoela azaldu dute herritarrek, adinistrazioaren jarrera salatuz. Aukeratzeko eskubidearen aldeko aldarriarekin aurrera jarraituko dutela jakinarazi dute, eta beraien seme-alabek hezkuntza publikoan ikasteko aukera izan arte lan egingo dutela.



izan da

Unibertsitateak aukeratuko ditu ikasleak

Espainiako Hezkuntza Ministerioak beste aldaketa bat jarri du mahai gainean datozen urteetara begira. Selektibitatea kendu eta unibertsitateen esku geratuko da ikasleen aukeraketa. Gaur egungo selektibitate-azterketa ikasle gehienek gainditzen dute, eta Jose Ignacio Wert Espainiako Hezkuntza ministroaren iritziz, horrek erakusten du probak ez duela funtzionatzen.

Hori hala, irakastaldi bakoitzaren amaieran (Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoa) proba bat gainditu beharko dute ikasleek, eta Batxilergokoa izango da selektibitatearen "ordezkoa". Azterketa hori eginda unibertsitate bakoitzak aukeratu ahal izango ditu ikasleak eta horretarako, bakoitzaren esku egongo da aukeraketa-prozesua nola egin eta zeri garrantzia eman

erabakitzea: curruciluma begiratu, elkarrizketa egin, Batxilergoko nota jakin batzuei garrantzia eman, etab. Selektibitateko azterketa kentzearekin batera, mota horretako azterketa egiteko aukera unibertsitateei emango zaie hala.

Azken selektibitatea 2017an izango dela azaldu du ministroak, eta Batxilergoko ikasleei 2018an ezarriko diete dekretu berria. Baina denbora ez doa denentzako abiada berean. Lanbide Heziketako ikasleei eta beste sistemaren batean ikasten ari direnei irailan aplikatzea da asmoa. Horren aurrean asko izan dira dekretu berriak jasotako ezezkoak, besteak beste, homogeneotasuna bermatzen ez duelako. Oraindik zirriborro bat besterik ez bada ere, dekretua definitzeko bidea abian da.

Euskarazko haur-eskola nahikorik ez Iruñean



Haur-eskolan euskaraz ikasteko eskaerak eskaintza hirukoizten du Iruñean. Euskalgintzako taldeek, Sasoiak eta hainbat sindikatuk jasotako datuen arabera, Udalak 164

plaza eskaintzen ditu euskaraz, eta 500 eskaera izan dituzte.

Iruñean, egun, hiru haur-eskola baino ez dago euskaraz, eta hirurak daude Txantre inguruan. Hau da, haur-eskoletan orotara 1.399 toki daude, eta 164 baino ez dira euskaraz. Euskalgintzako taldeek haur-eskolak euskaraz nahi dituztela aldarrikatu dute eta hori lortzeko lanean jarraituko dutela adierazi dute.

D ereduak eutsi egin dio Nafarroan

Iazko azaroan Guardia Zibilak D ereduko eskola publikoetan ikerketa egin zuela iragarri zenetik, euskararen aurkako hainbat ekintza egin dira Nafarroan, baina badirudi honek ez duela eraginik izan eskoletako matrikulazio garaian. Sortzen koordinakundeko eta Nafarroako Ikastolen elkarteko kideek jakinarazi dutenez, aurrematrikulazio garaian babes izugarria jaso dute.

Eutsi egin dio D ereduak. Sare publikoak pixkat bat behera egin duen arren, ikastoletan % 10 egin du gora. "Euskararen aurkako erasoak hasi zirenetik jendearen babes handia" sentitu dutela azaldu dute, herritarrek bat egin dutela eskolekin, eta matrikulazio datuak horren erakusgarri direla. Aurrera begira ere, euskararen alde lanean jarraituko dutela argi utzi nahi izan dute eta, erasoak eraso, D ereduaren aldeko aldarria hedatzen jarraituko dutela.



hizpide



Wert legeari aurre egiteko estrategia

Hezkuntzaren arloko hainbat elkarte eta sindikatuk osatutako plataforma Espainiako Gobernuak onartu duen LOMCE Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoaren aurka egiteko estrategia lantzen ari da. Gida bat osatu nahi dute estrategia horiekin, bai eta helburu duten hezkuntza sistema propioaren oinarriekin ere. Maiatzaren 10ean plataformak jardunaldia egingo du Altsasun.

Hainbat eragilek bat egin dute Wert legearen aurkako plataforman: ELA, LAB, EILAS, Ikastolen Elkarte, Sortzen, Ikasle Abertzaleak, UEU eta Hik Hasi. Joan den urteko ekainean jarri ziren martxan, eta, hezkuntza komunitatea osatzen duten kideen proposamenak jaso nahi dituzte, Wert en reformari aurre egin, eta ez ezartzea lortzeko.

Hezkuntza sistema propioaren ildo nagusiak zehaztu dituzte plataformako kideek: ikasleek garapen beharrak eta eskubideak bermatuko dituen heziketa integralaren alde egin dute batetik, eta sistemak behar nahiz eskubide horiek garatzeko behar adina baliabide izan beharke lituzkeela erantsi dute. Bestetik, ikasle euskaldun eta eleaniztunak sortuko dituen sistema jo dute helburutzat. Horrekin batera, curriculum propioa izango duen sistema izango dela gaineratu dute. Ikastetxeen autonomia ere defedatu dute, baita zentroyen parte-hartze eta funtzionamendu demokratikoa ere. Azkenik, oinarri horiei guztiei bidea emango dien "arau esparru propioa" eskatu dute.

0-3 zikloko hezitzaileen formazioko 2. promozioa



0 - 3 urte bitarteko hurrekin lanean ari diren hezitzaileentzako formazioa eskainiko du, bigarren aldiz, Hik Hasi.

Lehen promozioaren erantzun baikorra ikusita, eta, ikasturtea nola garatzen ari den kontuan izanik hartu da erabakia.

Formazioak hiru oinarri nagusi izango ditu:

- Emmi Pikler. Juanjo Quintela psikologoak koordinatuko du.

- Loris Malaguzzi. Alfredo Hoyuelos UPNAko irakasleak koordinatuko du.

- Formazio pertsonala. Alvaro Beñaran psikomotrizistak koordinatuko du.

Ikaslerro bakoitzean, gaian adituak diren Euskal Herriko nahiz kanpoko hezitzaileek emango dute prestakuntza.

Matrikulazio-epaia irekita dago eta www.hikhasi.com helbidean eman daiteke izena apirilaren 30 arte.

izango da

Ikasle eleaniztunen aldeko proiektua abian da

Duela sei urte inguru, Euskararen Kontseiluko lan-taldea hizkuntza proiektu eredu bat sortzen hasi zen, Ikasle Euskaldun Eleaniztunak hizkuntza proiektua, hain zuzen. Proiektua edozein ikastetxetan aplikagarria izatea zen helburua, eta euskara oinarritzko hizkuntza izanik, ikasle euskaldun eleanitzak sortzea, ikastetxean eta ikastetxetik kanpo euskararen erabilera sustatuz.

2012/2013 ikasturtean Donostiako Egia auzoko Aitor Ikastolak eta Dimako Ugarana Herri Eskolak teoriatik praktikarako jauzia eman zuten, eta Donostiako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Udalbiltzaren laguntzaz hizkuntza planari itxura ematen hasi ziren.

Martxo bukaeran agerraldia egin zuten bi eskoletako ordezkariak eta proiektuan lagundu dieten hainbat erakundek Hizkuntza Proiektua aurkezteko. Bertan esan zuten, ikasle eleaniztun euskaldunak helburu izanik, beharrezkoa da euskarazko espazio eta aukerak eskolaz kanpo ere izatea. Horrexegatik, eskola komunitateari eta herri edo auzoa osatzen duten eragile eta herritarrei proiektua zabaltzea ezinbestekoa dela diote.

Egiako Aitor ikastolako ordezkariak azaldu bezala, pasa den ikasturtean, proiektuaren lehenengo fasearekin hasi ziren, eta eragile bakoitzaren azterketa eta sentsibilizazio lana izan zen lehen pausoa. Sentsibilizazio lan horretatik auzoko hizkuntzen egoeraren diagnostia egin eta hizkuntza proiektuaren nondik norakoak zehaztu zituzten.

Ikasturte honetan, bigarren faseari ekin diote: proiektua eta egindako lana gizartera hedatzeari, hai zuzen ere. Horretarako, eragile bakoitzak bere esparruan

har ditzakeen konpromisoak zehaztea da lehen pausoa, eta horretan dihardute.

Proiektu hau Euskal Herriko gainontzeko herrietan ere baliagarria izango dela uste dute, eta proiektuaren xehetasunak nahi duen orrori zabaltzeko asmoz, apirilaren 4an jardunaldiak antolatu dituzte Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean.



Hik Hasi iraupen luzeko ikastaroak amaitu dira



Udako ikastaroak motz geratzen direla-eta, aurten, lehen aldiz, iraupen luzeko ikastaroak antolatu ditu Hik Hasik. Astean behin elkartuta, 30 eta 32 ordu iraun dute ikastaroek.

Argazkian, Urko Arozenak eskaini duen "Ametsak eta entrenamendu mentala zoriotsu izateko" ikastaroan parte hartu duten kideak ageri dira.

XV. Hik Hasi Udako Topaketak: uztailak 2, 3 eta 4

Hik Hasik eta EHUK antolatzen dituzten Hik Hasi Udako Topaketa Pedagogikoak uztailaren 2an, 3an eta 4an izango dira.

Topaketak Donostiako EHU eta Ekintza ikastolan egingo dira, goizeko 9:00etatik 14:00etara. Arratsaldeetan, berriz, tailerrak eta saio libreak jarriko dira aukeran.

Informazio osoa maiatzean agertuko da, www.bikbasi.com webgunean. Izena ematea, berriz, maiatza osoan zehar egiteko aukera egongo da.

GAIA

IKT-BLOK egitasmoa

Konpetentzietan trebatzea xede





Oinarrizko konpetentziak derrigorrezko eskolaren ohiko curriculumean txertatzea helburu hartuta, IKT-BLOK egitasmoa jarri dute martxan Lizarra Ikastolan (gaztelaniazko TIC TAC izenez ezaguna). Ikasleak konpetenzietan trebatzeko estrategia da. 3 urtetik hasi eta 16 urtera arteko ikasleentzat 26 proiektu osatu dituzte, ikasturte bakoitzerako bi. Ikasleei egoera eta arazo errealak planteatzen zaizkie, gelan ikasitakoa modu praktikoan aplikatuz, erresolbitu ditzaten.

Berritzailea delako eta arrakastaz ezarri delako sona handia lortu du egitasmoak, bereziki Nafarroan, eta bertako Eskola Kontseiluak foru komunitateko ordezkari izendatu du Espainiako Estatuako erkidegoetako Eskola Kontseiluen Topaketan parte hartzeko. Arrakastaren gakoa estrategian dagoela uste dute egitasmoaren arduradunek: “Kontua ez da zer nahi dugun, baizik eta zer egin dezakegun nahi dugun hori lortzeko. Eta gu ez gara egingo genukeen horretan geratu, baizik eta egin egin dugu”.

G

Proiektuak erabiltzen dira gelan ikasitakoa aplikatzeko

Bakoitzaren gosari ideala diseinatu, kanpotik datozen bisitariarentzat Lizarra ezagutzeko gida turistikoa prestatu, eskolan energia gutxiago nola gastatu aztertu eta neurriak proposatu, haurrek ahaztuta utzi dituztelako eskolan azaltzen diren arropekin zer egin planteatu... Hainbat proiektu egiten dituzte Lizarra Ikastolan, ikasleei gelan eskuratzen duten ezagutza eta ikasten dituzten prozedura eta jokabideak modu erreal eta praktikoan aplikatzeko aukera emateko. IKT-BLOK egitasmoa da eta duela lauzpabost urte jarri zuten martxan; helburua da oinarrizko konpetentziak derrigorrezko eskolaren ohiko curriculumean sartzea, eta 3 urtetik hasi eta 16 urtera bitarteko ikasleak oinarrizko konpetentzia horietan trebatzea.

IKT-BLOK egitasmoak, izenak berak iradokitzen duen moduan, Bateria Lanak Oinarrizko Konpetenzietan egitea esan nahi du, horretarako Informazio eta Komunikazio Teknologiak erabiliz. Xavier Roegiers, Lovaina Unibertsitateko katedradunaren Integraziorako Pedagogiaren inguruko teoretan oinarritu dira egi-

tasmoa martxan jartzeko eta EHuko Jesus Mari Goñi aritu da aholkulari lanetan. Horiekin batera Lizarra Ikastolako zuzendaritza taldeak eta irakasle guztiek hartu dute parte egitasmoan. 2006an Ingalaterran garatzen hasiziren PQ (Projects Qualification) izeneko proiektutik hainbat elementu hartu dituzte, eta baita Proiektuetan Oinarritutako Irakaskuntza izenekoaren inguruan biltzen diren hainbat planteamendu ere.

2006an Europako Batasuneko Parlamentuak Hezkuntzarako Erreferentziazko Marko bat ezarri zuen eta bertan helduarorako prestatzeko europar gazteek eskuratu beharreko oinarrizko konpetentziak zehaztu ziren. Adituen esanetan, bi berrikuntza nagusi zekartzen proposamenak: batetik, konpetentziei –kontzeptu erabat berria ez izan arren– protagonismo berezia ematen zuela; eta bestetik, konpetenzien gaineko proposamen zehatz bat egiten zuela. Lurraldearen arabera, aldaketa txikiren batzuk izan baditzake ere, 2006ko Europako Batasunaren proposamena da gaur egun Euskal Herriko eskoletako curriculumaren oinarria.



Josu Reparaz, ikastolako zuzendaria; Maider Etxaniz, DHBHko arduraduna; Aitziber Beroiz, Haur Hezkuntzako arduraduna; eta, Ixone Bakaiku, Lehen Hezkuntzako arduraduna.

IKT-BLOK egitasmoa

Ezarri da markoa, eman dira arauak, egin da proposamena, baina Jesus Mari Goñik dioen moduan, hori guztia praktikara eramateko estrategia falta da: “Eskolan ezin da lan egin marko teoriko-juridikoekin. Proiektuak, jarduerak eta elementu praktikoak behar dira”. Ez da beraz, konpetentziak lantzeko eta ebaluatzeko, jorkabide eta estrategia konkreturik diseinatzen aipatutako dekretuan. IKT-BLOK egitasmoak hutsune hori bete nahi du: oinarrizko konpetentziak lantzeko eta ebaluatzeko estrategia bat garatu, hain zuzen.

Euskal eskoletan, Europako Bata-sunaren Erreferentziazko Markoa txertatzeko bi estrategia nagusi jarraitu dira: batetik, curriculumaldatu eta guztiz eraberritu “konpetentzien araberako curriculum” sortuz; eta bestetik, orain arteko curriculum osatu eskolan eskuratutako ezagutzak aplikatzeko bitartekoak eskainiz ikasleek konpetentziak eskura ditzaten.

Bigarren bide horri heldu dio Lizarra Ikastolak IKT-BLOK egitasmoaren bidez. Ez dute curriculum berririk sortu, baizik eta orain artekoan oinarrituz, curriculum horren bidez ikasten dena era errealean aplikatzeko modua egin: “Gure ustez bigarren bide hori sinpleagoa eta praktikoa goa da. Izan ere, eskolari ez dio eskatzen beste berrantolaketa bat. Kontuan izan behar da irakasle asko ere kokoteraino dagoela horrenbeste aldaketarekin”, argitzen du Goñik. Hala, ondoko konpetentziak lantzen dituzte egitasmoaren bidez: hizkuntza komunikaziorako gaitasuna; matematikarako gaitasuna; zientzia, teknologia eta ingurumenaren zaintzarako gaitasuna; informazioaren trata-



Jesus Mari Goñi, EHUko irakaslea eta egitasmoaren aholkularia.

mendua eta gaitasun digitala; gaitasun soziala, eta aisiarako, kontsumo arduraturako eta osasunaren zaintzarako gaitasuna; gaitasun kultural eta artistikoa; ikasten ikasteko gaitasuna; eta autonomia, ekimen pertsonala eta garapen emozionala.

Estrategia zehatza

Oinarrizko konpetentziak lantzeko eta ebaluatzeko Lizarra Ikastolan proposatzen duten estrategia hainbat printzipiotan oinarritzen da: hasteko eta behin, ezagutzaren eraikuntza eta konpetentzien garapena bereizten dituzte, Goñik azaldu bezala, ezagutzaren eraikuntzaren atalean ikasketa berriak lortzea bilatzen da, konpetentzien garapenaren atalean berriz, ikasitako hori testuinguru jakin batean aplikatzea; bigarrenik, ezagutza eraikitze atalean egokiena irizten den metodologia erabiliko da, baina konpetentziak garatzeko atalean jardueretan oinarritutako metodologia (proiektuen bidezkoa); hirugarrenik, ezagutzaren eraikuntza lantzeko curriculum mantenduko da, oinarrizko aldaketak txertatuz (konpetentziak garatzeko behar diren ezagu-

tzak ziurtatuko direla dioen curriculumaren atala errebisatu behar da); azkenik, konpetentziak garatzeko Bateratze Lanak izeneko metodologia ezarriko da martxan.

Bateratze Lanak ikasitakoa aplikatzeko diseinatzen dira, hainbat motatako ezagutzaren integrazioa eskatzen dute, testuinguru eta egoera jakin batean planteatzen dira, eta jardueretan oinarritutako metodologia jarraitzen dute. Egitura didaktikoari dagokionez, Bateratze Lana jardueraz osaturiko sekuentzia didaktikoa da: hasierako jarduerak (aurrezagutzen errepassoa, egin beharreko lanaren aurkezpena, materialaren banaketa eta egingo den lanaren interesaren azalpena), garapen jarduerak (aukeratutako konpetentziak lantzeko prestatuak) eta bukaerako jarduerak (lanaren balorazio orokorra egiteko eta portfolioa osatzen laguntzeko) ditu.

IKT-BLOK egitasmoa aurrera eramateko, ikasturtean maila bakoitze-ko bi bateratze lan edo proiektu egi-ten dituzte Lizarra Ikastolan. Duela lauzpabost urte hasita, guztira 26 proiektu osatu dituzte 3 urtetik hasi

eta DBHko 4. mailara arte praktikan jartzeko. Josu Sueskun Lizarra Ikastolako DBHko irakasleak eta IKT dinamizatzaileak esplikaturako eran, proiektu horien bidez ikasleei testuinguru berriak eskaintzen dizkiete eta problema errealak planteatzen dizkiete, bakoitzak dakiena aplikatuz erresoluziorako bidea egin dezan: “Modu integratuan, eskolan ikasitakoa bizitza errealean aplikatzea da gakoa”. Integrazioa oso kontzeptu garrantzitsua da egitasmoaren barruan. Izan ere, normalean, ikasketa-prozesuetan ezagutzak modu soltean eskuratzen dira; proiektuetan, ordea, hainbat arlotako ezagutzak integratu egiten dira eta hala, oinarriko kompetentzia guztietara iristea lor daiteke.

Eskola-urteko denboraren % 10 bideratzen dute egitasmo horretara. Pixkanaka hasi dira, ez baitute uste egun batetik bestera aldaketa handiegia martxan jartzea komenigarria denik. Ez dakite denborarekin zabalduko den edo ez. Momentuz hazia erein dute.

Tutorearekin, arlokoarekin edota tokatzen den irakaslearekin egiten dute ikasleek proiektua. Izan ere, azken batean, ez da horren garrantzitsua irakaslearen papera: “Guk gidatzen dugu, baina eurek egiten dute lan guztia, eurei baitagokie honetan edo hartan kompetente direla erakustea”, azaldu du Sueskunek. Gainera, “arloko irakaslea” kontzeptua apur bat biguntzen ere saiatzen dira, pentsatzen baitute, adibidez, matematikako irakasleak ikasleari euskarazko testu bat osatzen ere lagun diezaiokela: “Nahiz eta jarduera zehatz horren edukia ez izan bere arlokoa, irakaslea



Josu Sueskun, DBHko irakaslea eta IKT dinamizatzailea.

hor egongo da laguntzeko”. Proiektuen diseinu-fasean irakasle guztiak –arlotakoak zein besteak– elkarrekin aritzeak asko laguntzen du horretan. Irakasleek proiektua ondo kontrolatzen dute: helburuak, non kokatzen den, zein jardura nola egin behar den, etab. Ondoren, ikasleei eskatzen diete proiektu hori, autonomia osoz, aurrera eramateko.

Ikasleen autonomia lantzea ere oso garrantzitsua da IKT-BLOK egitasmoa arrakastaz garatzeko. Izan ere, ikaslea, ahalik eta laguntza gutxienarekin, egiteko gai den proiektuak izan behar dute, hau da, ikasleari ahalik eta modu autonomoenean jarduteko aukera emango diotenak: “Ohiko ikasketa-prozesuan irakaslearen laguntza garrantzitsuagoa da kasu honetan baino”, argitu du Goñik. Horrez gain, ardura, eraginkortasuna, inizatiba edota sormena bezalako balioak ere sustatu nahi dituzte egitasmoaren bidez.

Hainbat arlo integratzen ditu eta testuinguru errealean aplikatzeko balio du beraz, IKT-BLOK egitasmoak. Jarduera errealak egiten saiatzen dira, haurrak ikasi duen horri zentzua

emango diotenak eta eskolaz kanpo elementuekin erlazionatzeko balioko diotenak.

IKT-BLOK egitasmoak Proiektuetan Oinarritutako Irakaskuntzaren metodologia berbera darabilela pentsa dezake batek. Eta izan ere hala da, baina bada diferentzia nabarmen bat: ez dira gauza berriak ikasteko proiektuak, ikasleek dakitena aplikatzeko proiektuak baizik. Hala dio Goñik: “Proiektu egitura dute, baina helburua ez da gauza berriak ikastea. Adibidez, ikasleek jakin dezakete karta bat idazten, eskolan karta bat idazteko prozedura zein den ikasi dutelako, baina kasu honetan bidaia bat egiteko diru-laguntza eskatzeko Udaleko zinegotziari karta idazteko eta bidaltzeko eskatuko zaie. Zentzu horretan, kompetentziak lantzeko estrategia bat da, ez gauza berriak ikasteko. Proiektu laburrak dira, aplikazioan oso zentratuak eta kompetentzien ebaluazioarekin erlazionaturik daudenak. Gure ustez curriculumak bi helburu ditu: ezagutzak eraikitzea eta kompetentziak garatzea; eta IKT-BLOK egitasmoaren bidez bigarrenari erantzuten zaio”.

Behetik gora, irakasleen eta ikasleen artean eraikia

Informazio eta Komunikazio Teknologien bitartez Bateratze Lanak Oinarrizko Konpetentzietan egitea da IKT-BLOK egitasmoaren xedea. Diseinuan lanik handiena Bateratze Lanak ematen badu ere, lanketa hori guztia *Google Sites* plataformaren bidez aurkezten da gero. Hala, proiektu guztiak bateratzen dira eta modu eraginkorrean lan egiteko aukera ematen du. Ikasleen nahiz irakasleen atalak bereizten dira bertan. “Ubagua Lizarra Ikastola” *Google* bilatzailean idatzita hel daiteke *site* horretara. Irekia da eta guztiek daukate eskura.

26 proiektuetariko bakoitza diseinatzeko, irakasleek lehen lehenik gaia aukeratzen dute. Hiru erreferente izaten dituzte kontuan: testuinguru soziala, pertsonala eta akademikoa. Ikasleentzat intereseko izan daitezkeen jarduerak topatzen saiatzen dira. Goñik adierazi bezala, konpetentziarik ez da testuingururik gabe. Beraz, bere ustez, konpetentzien ikuspegia buruan izatea ona da eskolan eskuratzen diren ezagutzek ikasleen konpetentzietarako balio duten edo ez ikusteko: “Zein da konpetentziaren aplikazio eremua? Ni konpetentzia izan naiteke, baina zertarako? Hobeto bizitzeko, gizartean hobeto integratzeko, lan-merkatuak prestatuago egoteko...”. Gauregun konpetentzia akademikoa da gehien garrantzen den konpetentzia toki askotan. Horrexegatik, Lizarra Ikastolan ez dituzte onartzen konpetentzia akademikoa bakarrik lantzen duten proiektuak.

Gutxienez, konpetentzia pertsonala eta soziala ere lantzeko aukera eman behar dute.

Era askotako proiektuak lantzen dituzte: Nondik dator edaten dugun ura?; Pertsona itsu bat ikastolan; Bidaia bat antolatzen; Ikasgelako liburutegia berritzen; Lizarrako parkeak; Lizarrako kiliki berria, etab. Guztiek egitura berbera edo oso antzekoa izaten dute. Proiektu bakoitzeko zazpi jarduera inguru egin behar izaten dituzte ikasleek. 0. jardueratik hasten dira, hau da, ezagutzen errepasotik. Gero garapen jarduerak egiten dituzte, eta azkenik ebaluazio jarduera bat egiten dute: ikasleek karpeta bat prestatu behar izaten dute egindako jarduera guztien emaitzak bilduz. Baina karpeta hori osatzea bera ere beste jarduera bat da: “Ez da ebidentzien bilduma soilik. Zerbait gehiago da. Ikasleak, alde batetik, autoebaluatu egiten dira; eta bestetik, jarduerari orokortasuna emanaz euren ekarpen pertsonala egiten dute. Heldutasun maila eskatzen zaie, ikuspegi kritikoa, autonomia”, adierazten du Sueskunek.

Proiektuak irakasleek eurek diseinatu dituzte Goñiren laguntzaz. Garrantzia ematen diote irakasle bakoitzak behintzat proiektu baten diseinuan parte hartzeari. Baina, kasu batzuetan beste ikastetxeren batean proiektu interesgarriren bat landu dela ikusten bada, proiektua hartu eta Lizarra Ikastolara egokitzen dute. Hori xe da, adibidez, “Teklak erabiltzeko

garia burua erabili” proiektuaren kasua. Gehienak halere, Lizarra Ikastolan bertan sortuak dira.

Ebaluazioa bi modutara egiten da: batetik, behaketa bidez, eta bestetik, ikasturte amaieran ikasle bakoitzak proiektuen karpeta jasotako ebidentziak baloratuz. Proiektu bakoitzak zazpi konpetentzia lantzen dituela eta konpetentzia bakoitzak lau edo bost ebaluazio irizpide dituela kontuan izanik, irakasleak 28-30 item inguru ebaluatu behar izaten ditu. Proiektuen lanketaren truke lortutako emaitzek eragina dute azken emaitzetan. Proiektuak zeharkakoak direnez, bakoitzean arlo jakin batzuk daude inplikaturik. Beraz, arloko irakasleak erabakitzen du proiektuaren lanketak puntuaren zein portzentaje hartuko duen. Ondoren, proiektuko jarduerak ebaluatzen dira oinarrizko konpetentziekiko: “Excel orriaren bidez sistema bat sortu dugu eta horrekin lortu dugu ikasleen oinarrizko konpetentziak ebaluatzea. Urteko bi proiektuak batuta, urtearen amaieran ematen da oinarrizko konpetentziei buruzko ebaluazioa”, esplikatu du Goñik.



Egitasmo berritzailea eta arrakastatsua

Arrakasta eta sona handia lortu du, bereziki Nafarroan, Lizarra Ikastolaren IKT-BLOK egitasmoak. Nafarroako Eskola Kontseiluak foru komunitateko ordezkari izendatu du Espainiako Estatuko erkidegoetako Eskola Kontseiluen Topaketan parte hartzeko. Proiektu berritzailea delako aukeratu dute, eta arazo erreal bat konpontzera bideratutako estrategia bat planteatzen duelako: ikasleak konpetentzietan trebatzeko estrategia, hain zuzen.

Goñiren ustez, azken urteetan berrikuntza teoriko asko egin eta papelean asko idatzi bada ere, eskoletako praktika oso gutxi aldatu da. Bere hitzetan, erronka pedagogikoa estrategian dago: “Kontua ez da zer nahi dugun, baizik eta zer egin dezakegun nahi dugun hori lortzeko”. Haren esanetan, maiz denbora eta indar handia galtzen da adierazpen “orokor eta ederretan”, baina gero esandako hori ez da praktikara eramaten. Eta praktikara eramaterakoan ere, adituaren iritziz, oso garrantzitsua da ohiko curriculumean integratzen den zerbait izatea: “Iruditzen zait, sarri, modu parakurrikularrean lan egiten dugula. Gauza politak sortzen ditugu, baina askotan eskolan behin egin eta albo batera geratzen dira. Eta beti curriculumera bueltatzen gara. Nire ustez, azken urteetan egin dugun akatsa curriculumara ez aldatzea izan da. Metodologiaren inguruan ere gauza asko eta asko hitz egiten da, baina matematikatik algebra kentzen ez den arte-



an, eskola-porrota ez da desagertuko”.

IKT-BLOK egitasmoaren bidez curriculum aldaketa posible dela demostratu nahi izan dute. Momentuz, aldaketa handiegirik ez dute egin, baidakitelako ikastolak curriculumarekiko atxikimendu handia duela eta horrek egonkortasuna ematen duela. Lizarra Ikastolan hazitxiki bat jarri dutela diote, baina praktikoa eta egingarria: “Agian hori da proiektu honen balio handiena: ez gara egingo guren horretan geratu, baizik eta egin egin dugu”, dio Goñik. Sueskunen ustez, arrakastarako beste gakoetako bat ikastetxe osoaren inplikazioa izan da: “Gauza handia da 3 urtetik hasi eta 16ra arteko ikasleek, horien irakasleek eta komunitate osoak egitasmo bat

aurrera ateratzeko konpromisoa hartzea”.

Ongi ebaluatzearen garrantzia

Proiektuak ebaluatzeko garatu duten metodoak egitasmoa borobildu duela uste dute Lizarra Ikastolako ordezkariak, eta horrek ere eragina izan duela arrakastan. Hala azaldu du Sueskunek: “Azken batean konpetentziak lantzeko testuinguru irekiago bat planteatzen diegu ikasleei, euren proiektua egiten dute, eta ondoren ebaluazioaren bidez ikasleek egin duten lan hori oinarritzko konpetentzietara itzuli behar da. Hau da, neurtzen ditugun 30 itemak itzuli eta oinarritzko konpetentzietan islatzea lortu behar dugu”. Goñik gaineratzen duenez, ebaluatzen ez bada, proiektua pikutara doa, eta eransten du eba-

IKT-BLOK egitasmoa



luazioa dela curriculumaren giltza eta ebaluazioa aldatzen ez den bitartean curriculumua ez dela aldatuko.

Haurrak hiru urterekin egitasmoan parte hartzen eta proiektuak lantzen hastea ere oso eraginkorra izan daitekeela uste dute arduradunek. Izan ere, Lizarra Ikastolan aspaldi hasi ziren, txikitatik, hiru urteko haurrekin hasita, ahozkotasuna lantzen eta sekulako emaitzak lortu dituzte. IKT-BLOK egitasmoaren bidez oster, hasieratik konpetentzia guztietan trebatzen dituzte. Helburua zera da: arlo guztietan konpetente izanaz ateratzea eskolatik, eta ez soilik edukien zaku bat altzoan dutela. Egitasmoaren bidez gainera, ikasleen oinarrizko konpetentzien garapen historikoa izango dute ikastolan, haien eboluzioa nolakoa izan den jakingo dute eta horrek sekulako potentzialtasuna izan dezake. Zerbaitetan indarra jartzen bada, hori nabaritu egiten dela uste dute Lizarra Ikastolan eta egitasmo honek ere luzera begira fruitu mardulak emango dituen itxaropena dute.

Jakin badakite, gero eta azkarrago bizi den gizartean, emaitzak egun batetik bestera nahi izaten direla, baina argi dute hezkuntzan ezin dela horrela jokatu, eskolako lana beste mentalitate batekin egin behar dela: “Eguneroko lana egin behar da, praktikoa izan, eraikitzen, sortzen joan, poliki-poliki, konstantziaz eta desanimatu gabe, luzarora begira jardunaz, helburu handiekin, baina presarik gabe”, dio Goñik.

Aurten, lehenengoz, Jesus Mari Goñi Lizarra Ikastolan ez ezik, Iruñeko San Fermin Ikastolan eta Tafallako Ikastolan ere IKT-BLOK egitasmoa gauzatzeko aholkulari lanetan ari da. Erremintak jada sortuta daudenez, azken bi horietan askoz ere azkarrago doazela dio. “Bada anglosaxoiek erabiltzen duten kontzeptu bat, *now how*. Uste dut bide horretan goazela”.

Irakasleen prestakuntzarako bererako ere interesgarria iruditzen zaio Goñiri IKT-BLOK egitasmoa abian jarri izana. Izan ere, bere esanetan, irakasleen prestakuntzak zuzenean irakasleek dituzten beharrekin lotuta

beharko luke egon. “Irakasleek badute arazo bat: curriculumaren gestioa. Nola gestionatzen dut nik curriculumua? Nola ebaluatzen dut?”. IKT-BLOK egitasmoan irakasleek ez dute curriculum guztiaz arduratu behar, baina bai behintzat bi astekoaz: proiektua definitu, helburuak zehaztu, jarduerak markatu, ebaluazioa planifikatu... “Normalean irakasleek lan hori ez dute egiten. Kanpotik egin etortzen zaie. Kasu honetan, berriaz, irakasleek premia bati erantzun behar izan diote eta uste dut horrela euren lana hobeto egiten ikas dezaketela. Azken batean, horixe da prestakuntza profesionala”. Sueskunek erantsi bezala, irakasleentzat ere sekulako aukera izan da horrelako egitasmo batean hasieratik parte hartu ahal izatea. Beste aukera bat izan zitekeen material berrien zain egon eta horiek konpetentziak nola txertatzen dituzten behatzea. Baina aurre hartu eta auziari heltzea erabaki zuten, konpetentziak lantzen hastea eta lauzpabost urteko lana fruituak ematen ari da.

Adibidea, Lizarrako gida turistikoa

Oinarrizko kompetentziak lantzeko proiektu bidez lan egiten dute Lizarra Ikastolan eta Bateratze Lanak erabiltzen dituzte, hau da, sekuentzia didaktikoak. Lau ezaugarri nagusi dituzte Bateratze Lan horiek: ikasitakoa aplikatzeko diseinatzen dira, hainbat ezagutzaren integrazioa eskatzen dute, eta testuinguru eta egoera-familia jakin batean planteatzen dira.

DBH 1eko ikasleek egindako Bateratze Lan baten adibidea jasotzen da hemen:

Izenburua: Lizarraren gida turistikoa

Helburua: Lizarrako gida turistikoa bat prestatzea, herrian gauza ikusgarri asko daudenez, kanpotik datozen bisitariei erakusteko.

Deskribapen laburra: Lizarran dauden bisita leku ikusgarriak bilatu, aztertu eta deskribatu ondoren, ibilbide turistikoa sortzea da bateratze lan honetan proposatzen dena. Gida horretan herrian zehar egiteko ibilbideak prestatuko dira, bisitak era erosoan egin ahal izateko eta, era berean, herriko ahalik eta toki ikusgarri gehien bisitatzeko. Jasotako informazioarekin triptiko bat prestatu behar da herria ezagutzera datozenezat.

Aurrezagutzen zerrenda:

-Gizartea:

* Leku interesgarriak sailkatzeko eta aukeratzeko irizpideak.

* Herriko ondasun historiko, kultural eta naturazkoen balioa.

-Hizkuntza:

* Deskripzioen egiturak.

* Ahozko aurkezpeneko protokoloa.

-Informatika:

* Irudi digitalen kudeaketa.

* *Google maps*-en erabilera ertaina.

* Testu prozesatzailearen erabilpen ertaina. *Publisher* edo antzeko programa.

-Plastika:

* Triptikoaren diseinuak.

Landuko diren kompetentziak:

- Taldean modu kooperatiboan, gai bati buruzko hiriko bost toki interesgarri aukeratu eta ibilbidearen proiektua adostu.

- Lizarrako mapa batean aukeraturako tokiak identifikatu, haien arteko ibilbidea marraztu eta eskala erabiliz toki batetik besterako distantzia neurtu.

- Diseinatutako ibilbidea burutu eta informazio iturri ezberdinak erabilita tokien deskribapen testu egoikiak egin.

- *Google maps* programa erabiliz, ibilbidea digitalizatu distantzia eta denbora datu zehatzak lortuz.

- Bildutako dokumentuekin ibilbidearen liburuxka ekoiztu, era original eta argian.

- Talde bakoitzak Lizarran zehar egindako ibilbidea aurkeztu, jarrera komunikatiboa erakutsiz eta ahozko adierazpena zainduz.

- Osatutako dokumenturik esanguratsuenak bildu eta aurkeztu

proiektua ebaluatua izan dadin.

Jardueren zerrenda:

- 0. Jarduera: Proiektuaren aurkezpena. Irakurmena eta ulermena.

- 1. Jarduera: Taldekatzea eta gaiaren aukeraketa.

- 2. Jarduera: Gida turistikoa komuna. Ibilbidea adostu.

- 3. Jarduera: Ibilbidea burutu eta informazioa jaso.

- 4. Jarduera: Digitalizazioa eta tokien deskribapena.

- 5. Jarduera: Ibilbidea mapan marraztea.

- 6. Jarduera: Triptikoa eta liburuxka osatu.

- 7. Jarduera: Ibilbidearen aurkezpena egin.

- 8. Jarduera: Ebaluaziorako portfolia prestatu.

Ebaluatuko diren atalak (8):

1) Norberaren erabakiak arrazoi-tu eta besteenak errespetatuz, ibilbidearen gai komuna adostea.

*Irizpideak:

- Taldea eta taldekideen izenak azaltzen dira.

- Norberaren proposamena argia da.

- Ideiak ematen ditu.

- Malgua da eta besteen ideiak onartzen ditu.

...

*Informazio gehiago izateko, jo ondoko helbidera:

<https://sites.google.com/a/lizarrainkastola.com/ubaguaproiektua/>

itziar agirre josune alberdi



ELKARRIZKETA

“Irakasleok haurra familiaratik datorren bezala onartu behar dugu, bere izaera, egoera eta albo-eraginekin”

Pedagogia sistemikoan adituak dira Itziar Agirre eta Josune Alberdi. 2003an Angelica Olverak Mexikon sortu ondotik, pedagogia hori Euskal Herrira ekartzea eta hemengo errealitatera egokitzea tokatu zaitu Agirreri. Psikologo klinikoa izateaz gain, Euskal Herriko Pedagogia Sistemikoaren Eskolako zuzendaria ere bada uneotan. Alberdi berriz, eskola horretan euskarazko formazioaren arduraduna da eta baita Eibarko Berritzeguneko aholkularia ere.

Orain, Euskal Herrian espazio berri garrantzitsu bat irekiko zaitu pedagogia sistemikoari: euskarazko prestakuntzarena hain zuzen. Eta lehen aldiz pedagogia sistemikoaren inguruko formazioa euskaraz egin ahal izango da, Hik Hasik antolatutako Udako Topaketetan.

Agirre eta Alberdiren esanetan, ordena eta kokapena dira pedagogia sistemikoak hezkuntzari egin dizkion ekarpen nagusiak: "Pedagogia sistemikoak erakusten digu parte garen sistema bakoitzean nola koka gaitzkeen". Oraindik hastapenetan badago ere, indarra hartzen ari dela eta, epe laburrean, lanerako espazio berri bat irekiko dela uste dute, bai klaustru mailan eta baita komunitate osoan ere.



Pedagogia sistemikoa paradigma berria da, eta hezkuntzarekiko begirada eta jarrera aldatzea eskatzen du. Zertan egin behar da aldaketa? Eta nola bidera daiteke paradigma berri hori?

ITZIAR AGIRRE: Paradigma berriaren funtsa hezkuntzan ordena sartzeko da. Pedagogia sistemikoa ordenaren pedagogia da, eta sistemaren barnean birkokatzea eskatzen du. Benetan gertatzen ari dena aztertzen, errealitatea ulertzen eta errealitate horretan kokatzen erakusten digu hezkuntza-paradigma berri horrek.

Ikastetxe batean pedagogia sistemikoa txertatzeko, beste era bateko begirada behar da. Oinarrian, begirada aldatzeaz ari gara, jarrera aldatzeaz. Adibidez, uneotan, irakasle asko gela barneko arazoak bere horretan ulertzen saiatzen dira. Pedagogia sistemikoaren bitartez, konponbideari begiratzen saiatzen gara, eta hori bera aldaketa handia da. Baina nola begiratzen zaitu konponbideari? Lehenik eta behin, haurra erakusten ari zaigun guztia, bere testuinguru osoa (familia, ikaslearen heltze-prozesua, une horretan gertatzen ari den arazoa...) gure begiradan txertatuz. Zentzu horretan, ikaslearen familiako testuingurua arazoaren konponbidean txertatzea da paradigma berri honen bereizgarrietako bat.

JOSUNE ALBERDI: Hainbat sistema daudela eta horietako bakoitzaren barnean pertsonak funtzio bat edo beste betetzen duela konturatzea ere garrantzitsua da. Esaterako, irakasle bat era bateko edo besteko sistematik

etor daiteke, baina autoritate-funtzioa betetzen du hezkuntza-sisteman, eta hori oso kontuan izan behar du. Era berean, une horretan hezkuntza-sistemaren barnean egon arren, argi izan behar du haur bakoitza bere familia-sistematik datorrela, eta familia-sistema hori oso kontuan hartu behar du.

Haurren errealitatea bere osotasunean hartzen saiatzen da pedagogia mota hau. Zehatz dezakezue horrek zer esan nahi duen?

J.A.: Ikaslearen alderdi guztiei erreparatzea esan nahi du: alor akademikoari, pertsonalari eta sozialari, oinarrizko gaitasunei, haren gaitasunei eta eskura dituen erremintei, baliabideei nahiz estrategiei. Eremu horietan ikasleek arrakastaz aurrera egiten badute, euren garapena egokia izango da. Arazoa honako hau da: haurrek zailtasunak dituztenean, nola lagun diezaiekegun alor akademikoan, pertsonalean nahiz sozialean egoki gartzten. Eta, hor, alderdi akademikoan soilik jartzen dugu arreta sarritan, besteetan egon daitezkeen hutsuneak kontuan hartu gabe.

Ikaslearen alderdi eta sistema guztiak irakaslearen begiradan txertatzeak zertan lagun dezake?

I.A.: Ikasle bat bere testuinguru eta guzti onartua sentitzen denean, ikasle hori sendotu, indartu egiten da. Horrek ikaslearen oinarrizko beharrak artatzen ari garela esan nahi du. Aldiz, bere hainbat ezaugarri edo errealitate kanpoan uzteak ikaslea ahuldu dezake.

Kontuan izan behar dugu ikasleek zein irakasleek oinarrizko behar bartzuk dituztela, eta, behar horiei begiratzen ez bazaie eta aintzat hartzen ez badira, arreta guztia behar horiek asetzeari jarriko dugula uneoro. Adibidez, zenbait eremutan ikaslearen garapen akademikoan egiten da ahalegina, baina baliteke aldi berean ikasle horren hainbat behar emozional asegabe izatea. Kasu horretan, hezkuntza-testuinguruan nahiz testuinguru

itziar agirre josune alberdi

E

“Ikasle bat bere testuinguru eta guzti onartua sentitzen denean, ikasle hori sendotu, indartu egiten da”

“Ordenatzen ari garenean, sistemaren barruan bakoitzak dagozkion funtzioak bere gain hartzen ari gara, ardurak eraginkortasunez betetzen”

sozialean behar emozional horiek izango dute lehentasuna, ordenak hala eskatzen duelako.

Beste pedagogia mota batzuek garrantzi handia ematen diote, alor akademikoari ez ezik, alderdi emozionalari edota pertsonal eta sozialari ere. Hortaz, zein da zehazki pedagogia sistemikoaren bereizgarria?

I.A.: Ordena eta kokapena dira pedagogia sistemikoak hezkuntzari egin dizkion ekarpen nagusiak. Begirada sistemikoa txertatzen du hezkuntzan. Geure gorputzetik beretik hasita, mundua sistemikoa da. Beraz, pedagogia sistemikoak erakusten digu parte garen sistema bakoitzean nola koka gaitzkeen.

Ordenak guztia barneratzen du: hezkuntza emozionala, fisika kuantikoa, pertsonaren heltze-prozesua... Edozein testuinguruk edo espaziok, ondo funtzionatuko badu, ordena behar du. Orain arte, objektuak ordenatzen ohitu gara, geureaz kanpokoa dena ordenatzen. Pedagogia sistemikoaren bidez, ordea, geure burua ordenatzen dugu, parte garen eta une horretan gauden sistemaren arabera.

J.A.: Gakoa sentitzean datza. Irakasleak hori guztia teoria kognitibotik harago bizi, sentitu, esperimentatu eta egiaztatzen du, eta ondorioak ateratzen ditu. Horrela, bere eguneroko praktika eralda dezake.

Azken batean, hainbatetan en-

tzun, ulertu eta ustez ikasi duguna betetan gure barnean sentitzeko, geure egiteko eta praktikara eramateko auserdia ematen digun begirada da pedagogia sistemikoa.

Ordena da, beraz, pedagogia sistemikoaren muina. Baina, ordena aipatzen duzuenen, irakasleez, ikasleez, gurasoez, eskola-elkarteaz... Zertaz ari zarete zehazki?

I.A.: Gizabanako bakoitzaz ari gara. Pertsonok ordena behar dugu geure bizitzan. Pedagogia sistemikoak ordena hori bera darama hezkuntzara. Hezkuntzak, sistema den heinean, lehen-lehenik, sistemari dagozkion partaide guztiak bere barnean txertatu behar ditu, ez bakarrik irakasleak, ikasleak eta eskolako langileak, baita gurasoak ere.

Irakasleei autoritate-funtzioa betetzea dagokie. Euren egitekoa ikaslea zaintzea eta indartzea izango da, baita etorkizunerako prestatzeko prozesuan laguntzea ere. Bestetik, irakasleak kontuan izan behar ditu lankideak, eta sare-lanean ari dela jabetu behartu du. Sare horretan, bakoitzak bere funtzioak eta ardurak ditu, eta horiek ere errespetatu egin behar dira.

Zein dira “ordena egokia” ezartzeko gakoak?

I.A.: “Ordena” hitzak gaizki egiten digu belarrira, badirudi inposizioaz



ari gabela. Hitza bera gutxietsita dago gure gizartean. Ordenatzeaz ari garenean, sistemaren barruan bakoitzak dagozkion funtzioak bere gain hartzeaz ari gara, ardurak eraginkortasunez betetzeaz.

J.A.: Besteak inbaditu gabe eta norberari ez dagokionean sartu gabe, bakoitzak bere erantzukizuna hartzea da kontua. Uneoro eta egoera guztietan dagokigun tokian egoten asmatzea da gakoa. Eta egiteko hori arduz eta autoritate egokiz betetzea.

Autoritateaz hitz egiten duzue. Nola ulertzen duzue autoritatea, eta zer funtzio du? Ez al gara sarri autoritarismoan erortzen?

I.A.: Autoritarismo zantzuko gizarte batetik gatoz, eta, beraz, garrantzitsua da autoritate hitza ongi ulertzea. Guztiok aitortzen dugun erreferentziatzako pertsona da autoritatea. Erreferentzialtasun hori aitortzen diogu guztiok, bizitzako uneren batean eredutzat hartu dugun autoritate egokiren bat izan dugulako.

Autoritate egoki horren ezaugarri nagusia haurra zaintzeko, berarekin egoteko nahiz espazio seguru eta konfiantzazkoak sortzeko gai izatea da. Haurrek ereduak eta erreferenteak behar dituztela sentitu behar du autoritateak. Erreferente hori baliodun eta printzipiodun pertsona izango da. Baina, batez ere, haurren espazio guztiak eta haurra bera bere testuinguru guztiarekin errespetatuko du.

Autoritate egoki batek haurren beharrei erreparatzen die; aldiz, egokia ez den autoritate batek bere buruari begiratzen dio. Horixe da diferentziarik nabarmenena. Autoritate-funtzioa betetzen ez badugu, desordenean gaudela esan nahi izango du, eta, horren ondorioz, ikasleek erreferentziatzako pertsona horiek beste toki batzuetan bilatzen dituztela. Kalean bila ditzakete, edo idoloetan, eta baita drogetan zein alkoholean ere.

Haurren bi sistema nagusiak familia eta eskola dira, eta hirugarrena gizartea

edo komunitatea. Zer erlazio dago horien guztien artean? Nola eragin dezake sistema batek bestean? Eta ikasleengan?

J.A.: Eskolara beste sistema batetik iristen dira ikasleak, familia-sistematik, hain zuzen, eta hori onartu egin behar dugu irakasleok. Guk ere parte hartuko dugu haur horien hezkuntza-garapenean, baina euren lehen sistema familia da, eta, beraz, familia eza-gutzea, kontuan izatea eta familiekin elkarlanean aritzea dagokigu. Zentzu horretan, irakasleok argi izan behar dugu zein den, haurrari dagokionez, eskolak jokatzen duen rola eta zein familiak jokatzen duena. Eta, hori kontuan izanik, ordena jartzen hasiko gara. Ondo ordenatuta bagaude, bakoitza dagokion lekuan eta dagokion funtzioa betetzen ari bada, gauzak hobeto joango dira, eta arazo gutxiago izango dira. Horrek ikaslearen ikas-kuntza-prozesuari on egingo dio.

I.A.: Alderdi soziala ere sartu behar da ikaslearen testuinguruan, eta, hain zuzen, soziala den oro hezkuntzan ere txertatuta dago. Haurrak eskolan ondo ordenatuta badaude eta horretarako irizpideak ematen badizkiegu, gizartean ere hobeto funtzionatuko dute.

J.A.: Baina sistema batean zein bestean, haurrangan jarri behar dugu begirada. Irakasleok, gurasoek zein komunitateko beste kideek haurra erdigunean jarriz eta berari begiratu lortzen dugu haur hori bizitzarako garatzea.

Balio dezake pedagogia sistemikoak familiaren eta eskolaren arteko harremana hobetzeko?

J.A.: Lehenik, eskolak argi izan behar du zer funtzio duen: eskola haurraren zerbitzura dago, eta, era berean, baita familiaren zerbitzura ere. Bizitzak ekar diezaikeenaren aurrean ondo prestatuta egongo diren ikasleak hezten laguntzea da eskolaren egitekoa. Ondo prestatuta egoteak curriculumeko ezagutzak barneratuta izatea esan nahi du, baina baita haurra beste pertsonekin erlazionatzeko eta



bere emozioak gestionatzeko gai izatea ere, edota ikasleak bere burua eza-gutu eta zailtasunak gainditzeko estrategiak edukitzea.

Ikasketa-prozesu horretan guztian, irakaslea izango du laguntzaile haurrak. Zenbait haurrek eskolaren beharrik gabe gara dezakete ikasketa-prozesu hori, bereziki, familia-sistemaren barruan. Baina era guztietako haurrak daude, eta eskolak guztien beharrei erantzun behar die. Eta ikasle guztiak garapen akademiko nahiz pertsonal egokia izatea lortu behar dute. Horretarako, noski, ezinbestekoa izango da eskolaren eta familiaren arteko elkarlana. Izan ere, irakasleok haurrari bere bizitzako aldi batean lagun diezaiokegu, baina familia da haurra mundura ekarri duena eta haren bizitza osoan alboan izango duena.

Sarri entzuten da haurra bere familia eta guzti doala eskolara. Gero eta aniztasun handiagoa dago familien artean. Nola lagun dezake pedagogia sistemikoak familien nahiz ikasleen aniztasuna kudeatzen?

I.A.: Pedagogia sistemikoaren helburuetako bat da aniztasunaren kudeaketa. Izan ere, alor horretan, ordena konponbiderako gakoa izan daiteke. Adopzioeko familiak daude, gurasoak bananduta dituztenak, guraso bakarrekoak... Lehen-lehenik, kasu

itziar agirre josune alberdi



Hezitzaileak darabilen hizkeraren garrantzia ere azpimarratzen duzue.

J.A.: Hizkuntzaren hutsezintasunaz hitz egiten dugu. Hitz egokiak erabiltzea esan nahi du horrek, diogunari ez eranstea esan nahi duguna ilunduko duen ezer edo ikaslea ahul dezakeen ezer.

I.A.: Hizkuntza ikaslea indartzeko, sendotzeko erabili behar da, ez kontrakorako.

J.A.: Subjektiboa eta objektiboa bereizten saiatzen gara. Adibidez, gurasoekin haurren gainean hitz egiten dugunean, irakatsi eta ikasteko prozesuaz ariko gara, objektiboa dena balioetsiz, eta ez, gure balioak batzuk edo besteak direlako, izan dezakegun ikuspegi subjektiboa helaraziz.

Subjektiboa objektibotik bereiztea ez da lan erraza izango. Irakasleen prestakuntza eta entrenamendua garrantzitsuak izango dira, noski.

I.A.: Ikasi egiten da. Bakoitza zer den antzematea da kontua, eta hori ikasten dugu pedagogia sistemikoaren gainean egiten ditugun ikastaroe-tan. Norberarena zer den ezagutzen ere ikasten dugu, zein den bakoitzaren esperientzia subjektiboa, horrek haurri begiratzeko moduan eragin ez dezan. Hala, irakaslearen beharretan zentratu beharrean, ikaslearen beharrek zeintzuk diren ikustea lortuko dugu. Hizkuntzaren erabilera egokiak haurri begiratzeko laguntzen digu, eta gela barruan espazio segurua sortzen. Eta, noski, espazio seguru bat lortzea ezinbestekoa da haurrak ikasteko jarrera irekia izan dezan.

Zein teknika edo metodologia erabiltzen dira pedagogia sistemikoa eskolan txertatzeko?

J.A.: Oinarritzko ideiak argi izatea eta begirada aldatzea da gakoa. Orain arte gauzak ikusteko genuen modua aldatzea eta hori apurka ikasgelan txertatzen joatea da funtsezkoena, eta emaitzarik ematen duten edo ez ikustea, zertarako gai garen neurtzeko. Adibidez, ikasturtea errepikatu duen

bakoitzean egon daitezkeen zailtasunak eta beharrak aitortu behar ditugu, eta, bigarrenik, ikaslearen errealitateari dagokion guztia eskolan txertatu behar dugu.

Haurra ez epaitzen edo kanpoan ez uzten saiatuko gara, haurra nabarmen ahuldu baitezake horrek. Haurraren familia den bezalako delarik ere, hori da bere familia, eta, duen testuinguruari esker, haurrak indartuta atera behar du. Haurri dagokion guztia, ahal den neurrian, eskolan txertatzen saiatuko gara, eta hori da lehenik haurra sendotzen eta, ondoren, garatzen lagunduko duena.

J.A.: Oso garrantzitsua da irakasleok haurra datorren bezala onartzea, bere izaera, egoera eta albo-eraginekin. Zenbait alderdik indartu egingo dute haurra, eta bizitzan aurrera egiten lagunduko diote, eta baliteke beste zenbaitek zailtasunak eragitea. Kasu horretan, nola lagundu dezakegu? Bada, eskolan ere aintzat hartuz arazoaren jatorriak duen testuingurua.

I.A.: Haurrek autoritate egoki bat onar dezaten, autoritate horrek euren osotasunean (testuinguru nahiz errealitate guztia barne) onartzen dituela sentitu behar dute hurrek. Adibidez, haur batek irakasleak bere aita alde batera uzten duela ikusten badu, arreta guztia horretan jarriko du, eta ez da beste zenbait gauza egiteko gai izango. Izan ere, haur horrek une horretan daukan behar nagusia bere aita hezkuntza-testuinguruan aitortua izatea da. Jakina, hori ez du haurrak modu kontzientean egiten, baina nolabait antzematen du, eta eragina du.

E

“**Irakasleok haurri bere bizitzako etapa batean lagun diezaiokegu, baina familia da haurra mundura ekarri duena eta bizitza osoan alboan izango duena**”

“**Hizkuntzaren erabilera egokiak haurri begiratzeko laguntzen digu, eta gela barruan espazio segurua sortzen**”

ikasle baten kasuan, soilik gelako zaharrena dela kontuan izatea eta hori berari aitortzea sekulako aurrerapauso izan daiteke. Ikaskuntza-prozesu batzuetan, zailtasun gehiago edo gutxiago izan ditzake, baina hura da zaharrena, eta, horregatik, besteek ez bezalako bizi-esperientzia izango du; hori aitortu behar zaio, eta betetzen duen lekua errespetatu. Xehetasun txikiak izan daitezke, baina aldaketa handiak eragin ditzakete.

I.A.: Pedagogia sistemikoan, metodologia eguneroko jardunaren barnean txertatuta dagoela esan daiteke. Jarrera, begirada eta gauzak ikusteko modua aldatzean dago gakoa. Beraz, irakaskuntza-jarduera aldatzea esan nahi du funtsean. Zentzu horretan, pedagogia sistemikoaren beste alderdi garrantzitsu bat mugak ezagutzea, bereiztea eta aitortzea da. Irakasleek lasaitu handia hartzen dute hala. Izan ere, zenbait kasutan, amaren, psikologoaren, gizarte-langilearen edota beste hainbat figuraren funtzioa betetzen du irakasleak. Aldiz, ordenaren printzipioa barneratuta badauka, konturatuko da bere funtzioa iristen den lekuraino iristen dela. Eta domino efektua eragin dezake horrek. Izan ere, pertsona bat birkokatzen denean, ingurukoak ere horretara behartuta sentitzen dira.

Hik Hasi aldizkariak 2007. urtean pedagogia sistemikoaren inguruko erreportajea argitaratu zuenean,



familia-konstelazioez hitz egiten zen. Oraindik ere erabiltzen dira?

I.A.: Pedagogia sistemikoa Angelica Olverak sortu zuen 2003an, Mexikon, eta geroztik hedatu da hona. Euskal Herriko esperientziari dagokionez, bi etapa bereizi behar dira: hasierako etapan, pedagogia sistemikorako erreminta gisa familia-konstelazioak erabili ziren, Bert Hellinger filosofo eta pedagogo alemanaren metodoari jarraituz. 2012an Euskal Herriko Pedagogia Sistemikoko Eskola sortzen denerako, ordea, nahiko esparru teoriko sakona izango da, eta ez dago konstelazioekiko mendekotasunik. Hellingerrek fenomenologiaz eta sistemez dioena hartzen dugu, eta eskola errealitatera eramaten dugu. Baina argi bereizten ditugu konstelazioak –terapiaren alorrari dagozkionak– eta pedagogia sistemikoa –hezkuntzaren alorrari dagokiona–. Zentzu horretan, orain praktikan jartzen dugun pedagogia sistemikoa hasierakoa baino askoz zehatzagoa eta praktikoagoa da.

Hamar bat urte daramatzazue pedagogia sistemikoa lantzen. Zer zailtasun izan dituzue urte horietan guztietan? Eta, aurrera begira, zer aukera ikusten dizkiozue pedagogia horri?

I.A.: Ez dakit honi zailtasun dei diezaiokekan, baina, hasieratik, nire erronka nagusia Euskal Herriko testuinguruan eta beharretan ordenaren ikuspegia txertatzea izan da. Onartu behar da Euskal Herrian ordena han-

dia dagoela. Ordena eskatzen duen lurraldea da. Izan ere, aitortu egiten du ordena, eta, hemen, akaso horregatik kokatu ahal izan dugu pedagogia sistemikoa horren ondo bere testuinguruan. Bestetik, aukera zabalak eskaintzen ditu pedagogia sistemikoak, baina guk ez daukagu plan teamendu itxirik, ezta aurrez ezarritako helbururik ere. Euskal Herriko beharretara irekita gaude. Orain, adibidez, espazio berri garrantzitsu bat ireki zaigu: euskarazko prestakuntzarena, hain zuzen, eta horretan ari gara. Bizipenetan eta sentipenetan oinarritutako pedagogia da, nolabait esatearren.

J.A.: Orain arte modu indibidualean aritu gara prestatzen. Oro har, ikastetxeetatik irakasle bakar batzuk etortzen ziren, eta, horren ondoren, irakasle horiek animatuta, beste batzuk. Badaude eskola batzuk prestakuntza taldean egin dutenak ere, baina gutxi dira. Horregatik, nik uste dut, pedagogia sistemikoa hastapenetan dagoen arren, indarra hartzen ari dela eta, epe laburrean, lanerako espazio berri bat irekiko dela, bai klaustroraino eta baita komunitate osoan ere.

Eta zer-nolako eragina izan dezake horrek ikasleengan?

J.A.: Begirada aldaketan dago gakoa. Izan ere, curriculumari, testuliburuei, norberaren estresari... begira gaude, eta, horrela, ezin diogu begiratu haurrari behar bezain ondo. Eta horixe da hain zuzen ordenak eskatzen diguna. Zer behar du ikasleak? Horri erreparatu behar diogu eta irakatsi eta ikasteko prozesuan ordena txertatzen badugu, hobeto joango da guztia.

I.A.: Hain zuzen ere diziplina hau horregatik sortu dela uste dut, beharra zegoelako. Azken urteetan, nahasmendu handian sartu gara hezkuntzan, eta, ezinbestean, hezkuntzaren muinera itzuli behar izan dugu, haurra erdigunean jartzera, funtsean hurrengo belaunaldiak hezteko eskolaren gitekoa.



0-3. Hezitzaileen formazioa

Biberoitik autonomiara

“Haurra bera da bere elikadura-prozesuaren protagonista, eta hark erabaki behar du, beti, noiz jan”

Juanjo Quintela psikologoak eta Susana Martinez elikadura-adituak gidatu zuten martxoan emandako eskolan haurren elikaduraren inguruko saioa, 0-3 urte bitarteko zikloko hezitzaileei zuzendu zitzaiena. Horretarako, haurren elikadura eta autonomian aditua den Maria Vincze Budapesteko Lockzy ikastetxeko irakaslearen ekarpenetara jo zuten, eta “Haurtxoaren otordua: biberoitik autonomiara” izeneko artikuluan ageri diren teorietan oinarritu ziren. Haren arabera, haurren sozializazio-prozesuan etapa guztiak dira garrantzitsuak eta zaindu beharrekoak. Horietako bat norberak bere burua modu independente, garbi eta zuzenean elikatzeke gaitasuna da.

Mundura jauzi egin aurretik ere haurra elikatzen da, baina kanporako urratsa egitean hasten dira istiluak eta arazoak: ez duela titia hartu nahi, biberoira ez dela ohitzen... Quintelak eta Martinezek azaldu zutenenez, haur askori gertatu ohi zaizkie antzekoak, eta, beraz, garrantzi handia du arazo



Susana Martinez ikastaroko une batean.

horiek detektatzen eta modu egokian erantzuten jakiteak. Izan ere, jaiotzen denetik 3 urte inguru izan arte, haurrak aldaketa asko izaten ditu elikadura moduetan, titia hartzetik hasi eta beste haurrekin jateko gai izan arte.

Haurrek aldaketa horiek lasai eta patxadaz bizi behar dituztela diote Quintelak eta Martinezek, eta bakoitzaren erritmoak errespetatu egin behar direla, debekatu eta behartu

gabe. “Haur-eskolako nahiz eskoletako jantokiak dira haur gehienek otorduen lekuko, eta otordu horietan haurrekin dagoen hezitzaileak haurren beharrei erantzuten jakin behar du une oro”.

Maria Vinczeren hitzak gogora ekarriz, bi hizlariak esplikatu zuten otorduek poztasuna eman behar diotela haurrari zein harekin otorduak partekatzen dituen hezitzaileari eta,

horretarako, ezinbestekoa dela biek elkar ondo ezagutzea: “Ezinbestekoa da otorduetan bien ongizatea eta plazera bermatzea; eta, bidea gorabeheratsua izan badaiteke ere, lor daiteke pausoz pauso aurrera eginez”, dio Maria Vinczek. Haren esanetan, beharrezkoa da, poztasuna oinarri hartuta, helburuak zehaztea eta fase bakoitza helburu horien arabera antolatztea, pixkanaka haurrak autonomia lor dezan elikaduran.

Vinczek behin eta berriz errepikatzen du: “Argi izan behar dugu une oro haurra bera dela bere elikadura-prozesuaren protagonista eta haurrak erabaki behar duela beti noiz jan nahi duen”. Horrexegatik, indarra edota indiferentzia alde batera utzita, hezitzaileak otorduetan jarrera hurbila eta lasaia erakutsi behar duela nabarmentzen du: “Hezitzaileak bere eginbeharrak ondo ezagutu behar ditu, baina baita haurraren gustu eta ohiturak ere, eta haurrari lasaitasuna emateko gai izan behar du. ‘Zer jakin beharko luke adin horretan?’, ‘zer independentzia-maila izan beharko luke jada?’. Gure jarrera ezin dute gidatu horrelako galderek. Otorduetan, haurraren eta hezitzailearen plazera eta ongizatea hartu behar ditugu kontuan”.

Izan ere, Vinczeren arabera, haurraren eta hezitzailearen arteko elkarrragina izango da otorduetan oinarri, eta bi norabideko harremana nagusituko da une oro. Helburua, betiere, haurrari autonomia eta independentzia ematea izango da, haurrak bere kasa jaten eta edaten ikastea, prozesu horrek ematen duen plazera oinarri hartuta. Haurraren autonomiarako bide hori hainbat etapatan banatzen du Vinczek.

1. Edoskitzea, biberoia

Zurrupaketa-objektua edozein delarik ere (titia, biberoia, edalontzia...), zurrupatze-ekintza bera dela

haurrari plazer handiena ematen dion elikatzeko modua dio Vinczek. Haatik, haur-eskoletan, gero eta txikiagoa da eradoskitako umeen kopurua, eta egoera ugartan dauden umeak artatu behar izaten dituzte: bularra hartzera ohituta daudenak, bularririk hartzen ez dutenak, biberoia errefusatzeko dutenak... Haren esanetan, ezinbestekoa da egoera bakoitzari behar bezala erantzuten jakitea. “Biberoia uztea izan ohi da zailtasun nagusia haur-eskoletan; baina, horri beldurra izan ordez, prozesua modu lasai eta geldoan eginez egoera berrira ohitzen joatea da gakoa”.

Biberoiaren kasuan, amaren titiburuaren forma duen titiordea aholkatzen du Vinczek, eta zuloa ez handiegia ez txikiegia izatea beharrezkoa dela dio, hala esnea turrustan edo tantaka irtetea saihesteko. Bestalde, zurrupaketa lasai egitea ezinbestekoa dela azpimarratzen du: 10-15 minutu hartuz (ez biberoia 4-5 minututan hustuz) eta hezitzailea eserita,

eroso eta lasai egonik. “Zurrupaketa-prozesuan haurrak bi besoak libre izatea ere oso garrantzitsua da, hala, haurrak mugimendu askeak egin ahal dituzan”.

Vinczek aditzera ematen duenez, haurrak jaiotzetik zurrupaketa-erreflexua badu ere, denbora behar izaten du ohitura hartzeko eta zurrupaketa lasai eta arazorik gabe egin ahal izateko: “Biberoiarekin elikatzea ez da us-te bezain sinplea; haur jaioberriek lo hartzen dute maiz. Beste batzuek arazoak dituzte titiordeari aho barruan heltzeko; askok hatza jartzen dute titiordearen alboan. Batzuek gogo handiz zuputzen dute, eta aire asko xurgatzen dute; horregatik, beharrezkoa izaten da geldiaraztea, jaten lasai jarraitu ahal izateko”.

2. Edalontzia, koilara

Haurrak biberoia edo titia hartzen badu ere, hasierarik likidoak (ura, zuku...), edalontzian edo koilaraz ematea gomendatzen du Vinczek, hau-



rrak pixkanaka bere elikadura-prozesuko elementuak ezagutuz ditzan: “Horrela, 2,5-3 hilabeteko adinean edalontzia pixkanaka ezagutzen joateko aukera izaten du haurrak, eta, haren elikaduran lekaleak sartzen ditugunean, soilik gustu berrira ohitu behar du, eta ez koilara erabiltzera, lehenagotik ezagutzen baitu”.

Bestalde, trantsizioko elikadura-fase horretan, ohikoa izaten da haurrak otordu berean biberioa, koilara eta edalontzia uztertzea ere. Beroriekin jateko edo edateko ordena haurraren arabera izango da.

Koilararen kasuan, hasieran kafe-koilara erabiltzea proposatzen du Maria Vinczek, eta, haurrak ahalmen handiagoa duenean, postreko koilara. Edalontziari dagokionez, berriz, ertza zorrotza ez izatea garrantzitsua dela dio, eta errazagoa izango dela haurrari kanpoaldeko ertza duen edalontzi batetik edaten ematea: “Bestalde, zenbat eta txikiagoa izan edalontzia, orduan eta errazagoa izango da likidoaren irteera neurtea”.

Fase horretan ere, haurrak parte-hartze aktiboa izan behar du, adituaren aburuz, eta otordu osoan zehar bi besoak libre izatea bermatu behar da. Haren arabera, haurrari pixkanaka zerekin eta nola jan behar duen erakustea da egokiena, betiere haurraren behar eta mugimenduetara egokitzeko gaitasuna izanez: “Horretarako, beharrezkoa da haurraren mugimendu eta erritmora egokitzea, zenbaterainoko ahalmena izan behar duen jakin behar dugu zehatz-mehatz, nola okertu edalontzia, nolako lastertasuna eman otorduari, etab.”.

Vinczeren esanetan, garrantzi handia du etapa horretan atzera egiteko gaitasuna izateak, hau da, haurrak koilara edo edalontzia errefusatu zergo, biberioarekin ekiteak, eta, gerora, beste uneren batean berriro edalontziarekin saiakera egiteak: “Saio asko-

ren ondoren haurrak metodo berriarekin mesfidati jokatzen segitzen duela egiaztatzen badugu, aurretik erabilitakora itzuli behar dugu: edalontziaren ordeztu, biberioira; koilararen ordeztu, edalontzira”.

3. Aulkian eserita

Haurrarentzat, urrats handia da hezitzailearen belaunetan egotetik bere kabuz egotera pasatzea, Vinczek dioenez. Baina, jauzi hori emateko, beharrezkoa da haurrak egonkor eserita egoten jakitea; beste norbaiten magalean badago ere, bere kasa edateko gai izatea edalontziari bi eskuekin helduta; hitz egiten zaionean, haurra gai izatea helduak beragandik zer espero duen ulertzeko; eta haurrak esperientzia hori ezagutzeko beharra izatea.

Vinczeren aburuz, haurra aulkitxoan bere kasa jaten saiatzeko prest dagoela sentitzen dugunean –gutxitan gertatzen da 14-15 hilabeteak baino lehen–, aukera hori eman behar zaio: “Lehen saiakera baino egun batzuk lehenago, aulkitxoa umea jolastan den lekuan edo umearen zaintzarako gordetako lekuan jarriko dugu, haurrak ikus dezan eta esertzen saia dadin. Zertarako den esan behar dugu, eta, une egokia dela irizten badiogu, beragandik espero duguna azaldu behardiogu, eta gosaria mahaian jarri”.

Haurrak bere kasa eseri eta jaten ikas dezan, hezitzaileak ez luke eserazi behar, Vinczek irudiko, haurrak berak sentitu behar baitu premia hori; eseri nahi duelako eseriko da, ez norbaitek behartu duelako. “Aulkian esertzea eta zaintzailearen laguntzarik gabe edatea, mahaitxotik edalontzia hartu eta hustu ondoren berriz mahaian jartzea lortzen baldin badu, bere bigarren esne-otordua eman diezaiokegu aulkitxoan. Eseri bai, baina edalontzia hartzeko asmorik azaltzen ez badu, gure belaunen gainean jarri behar dugu ostera ere”.

Edalontzitik bere kasa edatea erraz lor dezake haurrak, adituaren hitzetan, baina koilararen teknika zailagoa da, eta prozesua, berriz, luzeagoa. Hala ere, haren iritziz, hezitzaileak ez dio haurrari ahora eman behar, horrela ez baitu sekula ikasiko; baina egin nahi duen guztia egiten ere ez lioke utzi behar: “Haurrari saioak egiten utzi behar zaio, saiakeraz saiakera lortuko baitu koilara modu egokian erabiltzea. Saiakerek emaitzarik ematen ez dutela ikusita haurra nekatzen bada, bi koilararen teknika da proposena: hezitzaileak haurrari janaria ematen dio, baina haurrak bere kabuz saioak egiten jarraitzen du, beste koilara batekin”.

Aulkian bakarrik jaten hasteak arreta, denbora eta pazientzia izatea eskatzen du, eta, horregatik, garrantzi handia du hezitzailea haurbakar batekin egoteak. Bere kasa jaten ikasteko aulkia dagokionez, “Lockzy aulkia” proposatzen du Vinczek, aulkia horrek haurrari lasai eta zuzen eserita egoteko modua emango baitio, irrist egitea edo atzeraka erortzea saihestez gain.

Etapa horretan ere malgutasunez jokatzea eta atzera egiten jakitea ezinbestekoa da, Vinczek ustez, eta, haurrak aulkia errefusatu eta magalean jatea nahiago izanez gero, ez da egokia jarrera horren aurka egitea: “Haurraren biratu eta arreta jartzen badiu eskaini ahal izango dio zaintzaileak benetako laguntza umeari. Aulkia batean eroso jarri eta haurraren aurrez aurre paratu behar du, jakinik une horretan beharrezkoa dela umea estimulatzea, egiten uztea edo laguntzea”.

4. Otorduak taldean

Haurra bere kasa jateko gai denean, beste haur bat haren alboan jaten egotea egokia izan daitekeela dio Vinczek; binakako jatordu horiek izan ohi dira taldekako otorduaren lehenengo etapa. “Beharrezkoa da giro

lasai eta atsegina izatea, hurrek taldean jateko une hori alaitasunez bizi dezaten. Garrantzitsua da hurrek mahaian beren lekua zein den jakitea eta baita arauak errespetatzen ikas-tea ere”.

Etapan horretan, mahai karratu txikia da aproposena, adituaren esanetan; hurren oinak zoruan ondo bermatuta egongo dira, eta besaurreak doi bat tolestuta mahai gainean. Mahaia gainazala eta mahai-zapia garbigarriak izatea aholkatzen du, eta plater sakon txikiak zein postre-rako koilarak erabiltzea.

Hasieran, bizpahiru kideko taldeak izango dira egokienak, jaten ikasteko zein arauak ezagutu eta barneratzeko errazagoa delako, Vinczeren aburuz. Haurrak arauak ikasi behar ditu, eta jakin behar du arau horiek errespetatu behar dituela edozein delarik ere mahaikideen kopurua: “Gaizki sentitzen bada, urduritzen bada, mahaitik altxatzen bada..., ez da zigortuko, esaterako, janaririk gabe utziz edo gelatik kanporatuz. Alderantziz, naturaltzat hartu behar ditu bere jokaeraren ondorioak. Zaintzailearen ahotsak eta tonuak erabakiko dute haurrak nola sentitzen duen, esaterako, mahaia utzi beharra: zigor bezala edo bere ekintzen ondorio zuzen eta natural bezala”.

Kasu bereziak, zailtasun bereziak

1. Haur-eskola aurretiko elikadura

Hezitzaileek haur-eskolara doazen hurren elikadura aurretiaz nolakoa izan den jakin dezakete, edo ez. Sartu aurretik nola elikatzen diren jakinez gero, elikadura modu horretara egokitzea da onena, hala dio Vinczek. Izan ere, haurarentzat aldaketa handia da haur-eskolara joatea, eta baliteke bere atxikimendu-puntu bakarra elikadurari lotua egotea.

“Beharrezkoa da haurrari denbora ematea eta ingurua ezagutzen uztea. Gerora, pixkanaka gauza berriak irakasteko unea helduko da”.

Haurren elikaduraren inguruko informaziorik ezean, bestalde, are konplexuago egiten da egoera. “Informazioa lortzen saiatzea garrantzitsua da, zer elikagai dituen gustuko, zeintzuk errefusatzen dituen... jakiteko. Beharrezkoa da prozesu hori mantsoa eta graduala izatea”.

2. Mastekatzeko-arazoak

Ohikoak izaten dira mastekatzeko-arazoak ere, eta edozein zailtasunekin gertatu bezala, patxadaz gainditzea eta pausoak pixkana ematea gomendatzen dute adituek, haurren garapenean garrantzi handia baitu mastekatzeko ikasteak (normalean aurreko haginak atera ostean hasi ohi dira haurrak mastekatzeko).

Vinczek dioenez, jaki bigunekin hasi behar da prozesua, eta, haurrak aurrera egiten duen heinean, janari bat edo beste probatzeko eta mastekatzeko aukera emango zaio haurrari, baina behartu gabe. “Teknika berriekin gertatu ohi den bezala, maste-

katzea ere bakarka ikasi beharrezkoa da, eta, jaki solidoak errefusatzen baditu, purera itzultzea gomendatzen da; gerora, haurra prest dagoenean, ekingo dio jaki solidoak jateari”.

3. Gehiegi jaten duen haurra

Haur-eskola zein ikastetxe gehienetan badira gehiegi jaten duten haurrak, mugarik gabe jaten dutenak. Vinczeren esanetan, kontuan hartu behar da errazagoa dela gutxi jaten duen haur baten apetitua hobetzea, haur jatun baten nutrizioa arautzea baino: “Une oro errespetu osoz tratatu behar da haurra, irainak, barreak eta mingarria izan daitekeen edozer baztertuz. Garrantzitsua da jakitea jateko gogo mugagabea asgabetasunaren sintoma dela. Beharrezkoa da haurren egoera aztertzea, bai eta gainerako hurrekin, hezitzaileekin eta etxe-koekin duen harremana aztertzea ere. Asko jate horren oinarria harremanetan dagoela sumatuz gero, egoera aldatzeko laguntza eman beharko zaio haurrari. Ostera, jatea galaraziz edota disziplina zorrotzak ezarriz, egoera larriagotzea besterik ez dugu lortuko”.



EUSKAL GIROTZE BARNETEGIEN LAN-METODOLOGIA

“Barnetegia aukeren lekua da”

Euskal Girotze Barnetegietan euskararekiko hurbiltasuna areagotzeko gaur egun erabiltzen ari diren lan-metodologiaren ildo nagusiak aztertzen dira ondoko testuan.

Barnetegi hauek ez dira atzo goizekoak. Hezkuntza Sailak 1985ean sortuta, haien meriturik handiena da metodologiaren alorrean etengabeko behaketa-, saiakera- eta berrikuntza-dinamikan ibili izana. Barnetegietako lan taldea egonkorra eta profesionala da, eta 21 kidez osatuta dago. Haien ardura nagusia da ikasturtero bertaritzen diren ikasleei lau eguneko egonaldi gogoangarria eskaintzea. Urtero, 140 ikasgelatako ikasleak izaten dira barnetegietan, 3.500 ikasle inguru, eta haiekin batera 180 bat irakasle. Ikasleei birkokatzeak aukera eskaintzen die barnetegiak, euskararekin duten harremanean birkokatzeak. Irakasleentzat, berriz, irakaskuntzarako laguntza- eta prestakuntza-zerbitzu dira barnetegiak.

Hainbat dira, dagoeneko, zentro hauen lanaren fruituak: argitalpenak, materialak, hitzaldiak, prestakuntza-saioak... Horietako batzuek gainditu egin dute barnetegiaren lan eremua, baina gehienek barne erabilera izan dute.

Barnetegiotako irakasle-monito-



Euskal Girotze Barnetegietako arduradunak eta irakasleak.

reak, orainoan, “biluztu” egin dira: zer egiten duten azaldu digute, nola eta zergatik. Urte luzetako eskarmen-tuaren, saiakeraren eta hausnarketa sakonaren emaitza aurkezten digute, gaur egungo lan-metodologia gisa. Barnetegietan arrakastatsu gertatzen ari den lan-jardueraren gakoak antze-man dituzte. Horiek aurkezten dizkigute hemen.

Irakaskuntzan horren beharrezkoak ditugun “praktika on eta esanguratsu” horietako bat da Euskal Girotze Barnetegia. Testu hau ez da barnetegietako monitoreen praktikaren azalpen soila; horrez gain, haien lanaren atzean dagoen hausnarketa, metodologia eta ikasitako guztia partekatu nahi izan dute. Euskal Girotze

Barnetegiaren saiakera baliagarria zaigu eskola bestelako begirada batetik ulertzeko eta tratatzeko, bere osotasunean: ikaslea, irakaslea, gurasoak, euskara bera... , metodologiaren haratago. Hona hemen euren hausnarketa:

Euskararen lanketa

Euskararen erabilera areagotzea edota euskararekiko jarrerak eraldatzea ez da gai sinplea. Errealitatea konplexua da, eta ezin da sinplifikatu; eta konplexua den errealitate edo gai batek ezin du eraldaketa errazik izan. Askotan, errealitate konplexu hori kanpotik aldatzen saiatzen gara. Kanpotik eraldatzeko, sariak edota zigorrak erabili behar dira, baina ho-

rek min eta arazo handiak ekar ditzake; gainera, lortzen diren aldaketak azalekoak eta iraupen laburrekoak dira. Benetako eraldaketa barrutik kanpora egindakoa da. Horrela egin da bakarrik izango da aldaketa sakona eta iraunkorra. Presionatu gabe pertsoneri eta taldeei aukerak eskaintzea da gure lanaren ardatzetako bat.

Etengabeko esperimentazioa da gure lanaren motorra. “Zertarako?”, galdetu behar dugu, egiten dugunaz kontziente izan, eta probak egin: “*Probatzen duenak badaki, probatzen ez duenak, ez*”. Gure metodologia eta egiten duguna zalantzan jartzea da gure jardunaren beste ardatzetako bat. Zalantza da berrikuntza-aren iturria. Zalantza bai, baina beldurrik ez. Zalantzak aurrera egiteko bali dezake, beldurra ez. Beldurra blokeoa ekar dezake. Ikasi eta jakin beharko genuke zalantzaren eta beldurraren arteko tentsioa kudeatzen. Kezkak eta zalantzak hurrengo pausora eramango gaitu: berrikuntzara eta sormenera. Guk erakusteko daukaguna zera da: ez daukagula ezer erakusteko, egiten duguna zalantzan jartzea dela bidea. Bidea egitea da bidea. Bakoitzak berea. Sistema-ikuspegi batetik begiratu, aldaketa txikiak garrantzi handia izan dezakete gerora.

Gizakiok bihotza, gorputza eta burua ditugu: sentitu, bizi eta adierazi egiten dugu. Ikasleek bizitakoa sentimenduekin eta emozioekin lotzea lortzen baldin badugu, horrek eragina izango du haiengan. Hurbiltze fisikoa eta afektiboa lortu nahi ditugu, afektua ezinbestekoa baita hizkuntza bat erabiltzeko garaian. Barnetegian, eraldaketa-prozesu bat bizitzeko aukera eskaini nahi dugu, norbanakoak eta taldeak beren prozesua jorra dezaten. Horra hor gure beste ardatzetako bat.

Pertsona erdigunean jarri nahi dugu, eta harengana iritsi, norbanakoa bere osotasunean onartu, izaera eta

hizkuntza desberdinak errespetatu, ezagutu eta balioetsi. Pertsona aske eta osoa dugu helburu. Ikasleei, irakasleei eta taldeei esan nahi diegu: “*Zu inporta zatzaizkit*”. Haiek guri euskara inporta zaigula kontura daitezen lortu nahi dugu, baina haiek hizkuntza baino gehiago inporta zaizkigula. Eta hori goxo egin nahi dugu. Gehiago lortzen da ezti pixka batekin ozpin askorekin baino. Hori ere ardatza da guretzat.

“Ahaztuko dute esandakoa, inoiz ez sentitutakoa”

Eraldatze-prozesua

Barnetegietan dugun helburu nagusia hausnarketarako eta aldaketarako aukerak eskaintzea da, euskararekiko jarretan eragingo duen aldaketa eragitea, eta prozesu baten bidez egiten dugu hori. Prozesu horren ezaugarrietako bat malgutasuna da. Programa malgua behar dugu, taldearen errealitate eta beharretara egokitu dena; baina, malgutasunarekin batera, planifikazioa ere behar-beharrezkoa dugu. Taldearekin gauzatu edo abian jarri nahi dugun prozesua ondo planifikatu behar da, helburuetatik ez desbideratzeko, nola gauzatu

pentsarazteko, prozesutik ikasteko eta inertzian ez erortzeko.

Barnetegian, bi dinamika mota sustatzen ditugu:

Ekintza–Hausnarketa–Ekintza eta ***Taldea–Pertsona–Taldea***.

Denok ari gara beti besteena kopiatzen, besteekin elkarerraginean ikasten. Besteena hartu eta eraiki egiten dugu gurearen gainean, gure egiten dugu. Egonaldiak prozesuak dira, harremanak hobetuz taldea indartzeko aukera bat. Izaki sozialak gara, besteekin biziz ikasten dugu, ontzi komunikatzaileak izango bagina bezala. Planifikatzen eta gauzatzen ditugun jarduerak baino garrantzitsuagoa da nola gauzatzen ditugun eta ekintza hori egin eta bizitzean taldekideei zer gertatzen zaien. Esaterako, harreman afektiboei, hausnarketari, eraikuntza kolektiboari garrantzi handia ematen diogu. Eraldatzeko bidea abian jartzea da gure lana. Ez dago errezetarik horretarako, taldearen garapenean dago gakoa. Gure lana eraldaketa hori abiaraztea eta prozesua biziaraztea da, talde bakoitzak berea eraiki dezan, era positiboan eta bizipenetatik abiatuta.



Barnetegietako monitoreon lana

Gure lana, neurri handi batean, eredu izatea da, haurrentzako eredu izatea. Gu zubi izango gaituzte, euskararekiko bestelako ikuspegi baten bidean. Horregatik dira horren garrantzitsuak gure jarrerak. Gure zeregina ereitea eta ereitea da. Pazientzia handiz jokatu behar dugu, emaitzak azkar eta berehala ikusi nahi izateak sortzen duen antsietatea saihestu. Emaitzak etorriko dira, etorri behar baldin badute.

Taldearekin, ikasleekin eta irakasleekin konektatzen saiatzen gara, hurbiltasuna eta konfiantza-giroa sortzen. Guk barrutik hitz egiten badugu, besteek ere, agian, hala egingo dute. Gu irekitzen bagara, besteak ere errazago irekiko dira. Goxotasuna, samurtasuna eta babesa eskaini nahi ditugu, ilusioa, poza eta umorea. Giro goxo hori sortzeko, ezinbestekoa da norbanakoari eta taldeari entzutea. Guk, helduok, monitoreok eta irakasleok, gutxiago hitz egin behar dugu, eta gehiago entzun. Horretaz gain, bada beste alderdi garrantzitsu bat: gure ahalmena mugatua da, eta kontziente izan behar dugu horretaz. Hori lotuta, helduok kritikak naturaltasunez onartzen ikasi behar dugu. Kontrako iritziak eta kritikak haserretu gabe onartzen ditugula ikusten du-

tenean ikasleek, ireki egiten dira, eta taldea ere bai. Pertsona den bezala onartu behar dugu; saiatzen gara inor ez epaitzen, harremanak huts egiten baitu norbait epaituz gero. Horrela jokatuta, lehen aipatutako konfiantza-giroa handitu eta elkarriketa errazago sor daiteke.

Dinamika horrek gatazkak azaleratu egiten ditu, nabarmendu. Baina dinamikak ez du tirabirarik sortzen. Hor zeuden gatazkak lehendik ere. Era honetan, ikusi egiten dira, kanporatu. Gatazkak harremanen parte dira, eta horregatik ikasi behar dugu haiei aurre egiten eta modu egokian kudeatzen.

Hizkuntzaren trataera

Barnetegietan, hizkuntzaren alde ez-formalean zentratzen gara. Ez diogu hizkuntzaren zuzentasunari erreparatzen, eta komunikazioa lehenesten dugu. Gure langaia hiztunaren hizkuntzarekiko jarrera da, eta bada-kigu hori oso errealitate konplexua dela, eta ezin duela eraldatze errazik izan. Osotasunaren ikuspegia behar dugu. Euskararekiko jarrera eralda dadin, beste arlo eta gai batzuk ukitu eta mugitu behar dira. Hizkuntza bat edo beste erabiltzea afektibitatearekin oso lotuta dagoen hautua da, afektuekin eta kontzientziarekin. Ho-



regatik, hizkuntzarekiko harreman afektiboan eragin behar dugu. Horrela hobetuko dugu haien jarrera. Iruditzen zaigu jatorriz euskalduna ez den hiztunaren ama-hizkuntza onartetik etor daitekeela, haren kultura balioestetik, hark gurea onartzea eta balioestea. Gu ez gara ibiltzen hauren atzetik “*egin euskaraz*” behin eta berriz errepikatzen.

Gure helburua da ikasleak entzule izatetik hiztun izatera pasa daitezten. Ikasleek hitz egin dezaten, aukerak eta egoerak sortu behar ditugu, modu ludikoan. Baina badakigu barnetegian lortutako erabilerak ez duela ziurtatzen horrek gerora jarraipena izatea. Horregatik, erabileran baino gehiago, hizkuntzarekiko jarreraren zentratzen gara, jarreraren eraldaketan. Horretarako, hiztuna eta taldea jarri nahi ditugu erdigunean, ez hizkuntzaren erabilera. Hiztunaren jarreraren sorreran dauden osagaiak hausnarketarako gai bihurtzen ditugu: sinismenak, aurreiritziak, pentsamendu mugatzaileak... Hausnarketa horietatik sor daitekeen eraldaketa, hori bai izan daiteke sakona eta iraunkorra.

Prozesu horretan, pazientzia pe-





dagogikoz jokatu nahi dugu. Batzuetan, emaitzak azkar lortu edo ikusi nahi izateagatik pertsona behartzeko arriskua dago; eta hori ez da ona, ez guretzat, ez euskararentzat. Lasaitasuna ematekegin gaitzake erakargarri besteentzat. Euskararen gaira ez dugu hurbildu nahi ez galeratik, ez

tentsiotik, ez eta frustraziotik ere. Egokiagoa da satisfaziotik hurbiltzea, alde positibotik gerturatzea, irabazteko aukera ematea. Euskararen inguruan hitz egiten ari garenean, harremanez ari gara: hartu eta eman; ez diogu hizkuntza inori saldu nahi. Eta horiguztia euskaraz egiten dugu, eus-

kara entzun eta erabiltzeko aukera eskainiz, hizkuntza minorizatua elkarbizitzarako tresna baliagarria dela erakutsiz.

Hiztun kontzienteak lortu nahi ditugu, kontzienteagoak behintzat. Hori lortzeko prozesuan zentratzen da gure lan egiteko modua. Euskaraz hitz egitea ala ez, ez da hautu indibidual soila. Erabaki horretan, indar handia dauka kolektibitateak. Erabilerara gizarte-gaia da, eta, beraz, bi planoak uztartu behar dira: norbanakoa eta taldea.

Guk ez dugu pertsona aldatu nahi. Euskararekin duen harremana jarri nahi dugu aldaketa bidean. Horregatik, hizkuntzarekiko harreman afektiboa berariaz zaindu behar dugu. Euskaraz aritzea arau izatetik norberaren printzipio edo oinarri izatera pasatzea da gakoa. Lehen “zenbat egin duzu euskaraz?” galdetzen genien; orain, haxe esan dezaten nahi dugu: “Euskaraz egin nahi dut”. Baina erabaki, norberak erabakiko du, bakoitzak bere erritmoan.



Hazi Hezi

haziera eta heziketa aldizkaria

Urteko 4 aldizkarien
harpidetzak **20 euro**

www.hikhasi.com

Komun bereiziak neskentzat eta mutilentzat, ala ez? Eskola, generoa eta arkitektura

Komunen diseinua berriz pentsatzea

Bizi naizen hirian ikastetxe bat zaharberitzen ari dira, eta hezkuntza-komunitateak bere beharrak eta iritziak adierazteko aukera izan du. Alderdi askoren artean, planteatu da komunek zer diseinu behar duten, eta kontuan hartu da irakasleak generoaren inguruan (eta ikastetxean generoa tratatzeko moduaren inguruan) egiten ari diren hausnarketa-prozesua. Planteamendua oso interesgarria da eta, aldi berean, oso ezohikoa. Eskola gutxitan sortzen da eraikinaren arkitekturari buruz zer-bait esateko parada, normalean ez baita erabiltzaileen iritzia eskatzen. Baina, gainera, hezkuntza-komunitate guztiek ez lukete agian irizpide propiorik izango arkitektura-ekipoari adierazteko.

Bestalde, komunen diseinuari buruz eztabaidatzea ez da ohikoa; komunari eta pertsonen hondakinei dagokienak tabua izaten jarraitzen du hein handi batean. Eta, hala ere, uste dut eskolan aukera egon behar duela gorputza bere osotasunean tratatzeko, eta darabilgun gaiak ere orain arte jaso ez duen arreta merezi duela eta baita trataera pedagogiko kontzientea ere.



Amelia BARQUIN
HUHEZI-KO IRAKASLEA

Oinarrizko irizpide bat

Nolakoak izan behar dute komunek? Ez da edonolako galdera; zalan-tzarik gabe, diseinu arkitektonikoak badauka zeresanik parekotasunaren aldekoak eta aniztasunarekin begirunetsuak izan nahi duten esparruetan.

Izan ere, abian dagoen obrari begira, oinarrizko irizpide bat da esparruek nesken eta mutilen arteko parekotasuna erraztea, eta baita ikasle-en identitate-aniztasuna –prestakuntza-prozesuan dagoena– ahalbidetzea ere. Diseinu arkitektonikoak badauka zeresanik irizpide horri dagokionez, nahiz eta maiz ez den arreta nahikorik jartzen arkitekturak ikastetxeen balioei egin ahal dien ekarpenetan.

Ikasi dugu jada eskolako patioa ezin dela soilik futbol-zelai izan futboleko ondo jokatzen duten mutilentzat, eta beste mutilek eta ia neska guztiek ez dutela gainerako bazterrak erabiltzearekin konformatu beharrik (Subirats eta Tomé 2007), baina eskolako esparru asko berriz pentsatu behar dira oraindik. Komunek ez dute salbuespenak izan behar, guztiz kontrakoa baizik. Ez da ahaztu behar, osagai funtzionala edukitzeaz gain, sinbolikoa ere badutela, eta ez garrantzi gutxikoa, ikusiko dugunez.

Ikastetxean, bi gai planteatu dira. Lehenengoa izan da ea irakasleek Haur Hezkuntzako umei “zutik (mutila) / eserita (neska)” logika binarioan pixa egiten irakatsi behar dieten edo logika hori gainditu behar duten. Bigarrena izan da ea esparru bereiziak izan behar diren, alegia, “nesken komunak” eta “mutilen komunak”, orain arte bezala. Bigarren gaiari helduko diogu testu honetan, lehenengotik azkar batean pasatu ondoren.

“Zutik (mutila) / eserita (neska)” dikotomia

Gai hau beste testu batean jasota dago (Barquín 2013), eta ez naiz hemen luzatuko. Esango dut soilik

goian aipatutako eskolako Haur Hezkuntzako irakasleek uste dutela egokiena eta higienikoena haur guztiei pixa eserita egiten irakastea dela (aipatutako testuan aurkituko da azalpena garatuago).

Ondorio logikoa izango litzateke, beraz, ikastetxearen diseinu berrian, esertzeko ontziak ikasle guztientzat egotea, eta ez jartzea mutilek orain arte erabilitako paretako pixontziak. Baina beste kontsiderazio batzuk ere kontuan hartu dira: irakasleen esperientzia da mutil ugari, baita oso txikiak direnean ere, erresistentzia handia egiten dutela esertzearen kontra, eskolaz kanpoko haien ingurunean ikasi dutelako zutik egitea gizontasunaren parte dela (ezin uko eginezkoa?).

Horrek esan nahi du mutilen kopuru garrantzitsu batek jarraituko duela horrela jokatzeko eta, horren ondorioz, beste guztiak eseriko diren estalkiak zikitzen, gehiago ala gutxiago. Horren ondorioz, neskak eta beste mutilak esertzeko ontziak jartzeaz gain, eskolan beharrezkotzat jo dute paretako pixontzi batzuk ere jartzea, zutik egiten jarraituko duten mutilek horietan erabil ditzaten.

Generoaren logika binarioa gainditzeko beharra

Beatriz Preciadok (2006) azaldu du ustez premia naturalen zerbitzura dagoen arkitektura nola hel daitekeen generoa eraikitzen duen teknologia ezin diskretu eta eraginkorragoa izatera.

Gogora dezagun, lehendabizi, generoa eraikuntza sozial eta kulturala dela. Pertsonak bi sexuen arabera sailkatu eta gero, sexu bakoitzari izateko eta jokatzeko modu bat egotzen zaio, sozializazioaren bidez haragitzen dena. Oposizioan dauden bi generoetan hainbat eragilek laguntzen diote sozializatzeko horri: familiak, eskolak, erlijioak, komunika-

bideak, kultur produktuek...

Marina Subirats-ek, koheziketari buruzko ikerketa klasiko baten egileak (Subirats eta Brullet 1988), azaltzen du beharrezkoa dela bi generoetan hazi eta heztearekin lotutako murrizketak gainditzeko. Generoek desagertu behar dute: gizarteak inposatutako jokatzeko eta aritzeko moduek, sexuen arabera gizabanako guztientzat derrigorrezkoak direnek, ez dute laguntzen bizitzeko (Subirats 2013: 184). Egileak honela azaltzen du:

“Ez dauka zentzurik mutilei oldarkortasuna agintzeak, soilik mutilak izateagatik, haien izaeran eta borondatean egon ala ez; eta xamurtasuna eta enpatia neskei agintzeak, neskak izateagatik, nahitaez. Gizaki bakoitzak askea izan behar du bere jarrerak hautatu ahal izateko [...]. Gizaki bakoitzak aukera eduki behar du garai bateko ezaugarri femeninoak eta maskulinoak, bere baitan aurkitzen dituenak, konbinatzeko, eta horretarako askatasuna behar du, berak nahi duen neurrian eta egoeretan aukeraketa hori egiteko”. (Subirats 2013: 185. Itzulpena nirea da).


Hezkuntzaren arloan, beste hainbat arlotan bezala, asko dira honako hau aldarrikatzen duten ahotsak: “Gizakiak nahi dutena izatea eta nahi duten bezala bizitzea, jaio diren sexuak markatutako paturik gabe” (Varela 2008). Azkeneko hamarkadetan

garatu den *queer* teoriak etiketarik gabeko mundu bat proposatzen du, zeinetan nor bere identitatea libreki eraiki ahal izango duen.

Ez da makala hezkuntza-sistemak, orokorrean, eta ikastetxe bakoitzeko irakasleek, zehazki, generoaren eraikuntzaren arloan oraindik egin behar duten hausnarketa. Bide hori auto-kontzientziaz abiatzea desiragarria da: zein neurritan errepikatzen ditugu nire ikastetxeak eta nire genero-presioak ikasleengan, edo, alderantziz, zein neurritan laguntzen diegu gure ikasleei izaera libreagoa garatzen?

Komun publikoak generoa eraikitzeke gailuak dira

Komun publikoak (tabernakoak, zinemakoak...) eta etxeko komunak ez dira berdinak. Etxeetan gela bakarra dago hondakinez libratzeko, eta komun-ontzi bakarra, zoruari itsatsita, edozeinek pixa zein kaka egiteko. Komun publikoetan, berriz, bi esparru daude, bat emakumeentzat eta bestea gizonentzat. Eta esparruak desberdinak dira, dakigunez. Emakumeek ontzia bi funtzioetarako erabiltzen dute; gizonentzako komunetan, berriz, zoruko ontzia kaka egiteko erabiltzen da, eta paretako ontziak pixa egitekoak dira. Eskola batzuetan komuna etxekoa bezalakoa da, baina gehienetan leku publikoen



komunekin antz handiagoa dauka.

Preciadok, komun publikoen inguruan duela urte batzuk egin zuen analisisan, argi eta garbi azaldu zuen gorputzaren zaborra kudeatzeko espazioak izateaz gain, generoa zelatazko kabinak ere badirela:

“Komun bakoitzaren atean, zeinu bakar gisa, genero-interpelazio bat: maskulinoa ala femeninoa; emakumezkoak ala gizonezkoak; txapela edo zapia; bibotea edo loretxoa, kaka eta pixa egitera joan ordez generoa berregitera joango bagina bezala. [...] Axola duen bakarra GENE-ROA da” (Preciado [2006] 2013: 112).

Izan ere, egileak azaltzen duenez, emakumeen komunitan, adibidez, edozein erabiltzailek beste erabiltzaile baten genero seinaleak ebaluatu ahal ditu (ilearen luzera, makillaje eza, ibilera...), eta, horren arabera, pertsona horri adierazi lekuz erratu dela eta hortik kanporatu (poliziaren laguntzarekin, beharrezkoa baldin bada).

Komun publikoetan, emakumeek eserita egiten dituzte bi funtzioak, biak esparru pribatuan. Esparru publikoagoa da ispiluarena, non emakumeek generoa elkarrekin atontzen duten. Gizonen komunitan, berriz, bi funtzioak (genitala eta uzkiekoa) bananduta daude: pixa esparru publikoan egiten dute; kaka, aldiz, pribatuki, uzkiea begiradetatik babes-tu behar dute eta.

Gizonen komun publikoak konplizitatea eta sexua esperimentatzeko lekuak ere izan dira eta badira, emakumeen komunak ez bezala. Edozein modutan ere, Preciadorek ustez, pixa zutik egitea maskulinitate heterosexualaren performance erakitzailerikoa da, genero sortzailea da.

“Horregatik, lau pareta itxiren artean egon beharrean, taldearen begiradapeko espazio publikoan daude kokatuta: *gizonen-arteaz-zutik-pixa-egitea* partaideen arteko adis-

kidetasun-loturak sortzen dituen jarduera kulturala delako, gizon egiten dituelako”. (Preciado [2006] 2013: 115).

Egileak dioenaren ildotik, “hondakin organiko baten kanporatze bakoitzak generoa berriro sortzeko aukera gisa balio du” (Preciado [2006] 2013: 116).

Gehitu nahiko genuke intimitatearen beharra dela arreta eskatzen duen beste alderdi bat eskolako komun diseinuan. Beatriz Gimeno (2012) azaldu du gizon eta mutilen artean egon daitekeela bakarka pixa egiteko lehentasuna, beste gizon eta mutilen begiradetatik aparte eta konparaketatik libre; horrela adierazten dute hainbatek.

Eta mugitzeko zailtasunak dituztenak?

Interesgarria da konturatzea mugitzeko zailtasunak dauzkaten pertsonekin normalean ez dela eskatzen genero-sailkapen zorrotzik. Haien zatik komun bakarra dago toki gehienetan. Eta gerta daiteke, gainera, emakumeentzako espazioan txertatuta egotea (umeen fardelak aldatzeko gailua bezala). Erabaki pragmatiko moduan uler daiteke, errekurtsio asko ez inbertitzeko, baina, aldi berean, badirudi aniztasun funtzionala duten pertsonak sailkatzea ez dela besteak sailkatzea bezain garrantzitsutzat jotzen. Zergatik? Azalpena izan daiteke besteek ez dituztela sexudun moduan ikusten pertsona horiek. Haien elbarritasuna da lehenengo planoan –bakarrean?– jartzen dena, kito.

Paco Guzmánek eta Raquel Lucas Platerok hitz egin dute sexualitatearen arloan aniztasun funtzionala duten pertsonen inguruan eraiki den estereotipo multzoaz: ez dutela sexu-instinturik, ez direla erakargarriak edo desiragarriak, ez direla gai sexuharremanak izateko... Sexua tabu moduan irudikatzen da haien ka-

suan. Izan ere, Guzmánek eta Platerok azaltzen dutenez, aurreiritzi horiek “persona presionatzen dute, gizarteak berarengandik espero duena izaten saiatzeko: izaki asexuala” (Platero 2012: 146, itzulpena nirea da).

Horrek berretsi egingo luke Preciadorek ondoz ondo, alegia, komunak generoa eraikitzeke gailuak direla. Elbarriekin ez litzateke beharrezkoa izango, asexual moduan ikusten diren heinean.

Ume transexualak eta komun erabilera

Beste komunak bezala, eskolako komunak ere, gaur egun diseinatzen eta erabiltzen diren eran, generoa eraikitzeke tresnak dira; hori argi gelditzen da zenbait umerekin gertatzen diren gatazka batzuetan, hain zuzen, medikuek eta gizarteak esleitu dieten generoarekin identifikatzen ez diren umeekin lotuta sortzen diren gatazketan.

Hori izan da Coy Mathisen egoera; sei urteko ume estatubatuarra da, zakilarekin jaiola eta bere burua neska moduan ikusten duena. Noiz egin du jauzi gaiak komunikabideetara? Umearen eskolako zuzendariak neskentzako komunak erabiltzen jarraitzea debekatu ondoren, haren gurasoek gaia auzitegira eraman dutenean, umearen eskubideak urratzen ari zela uste zutelako (García 2013).

Andaluzian ere fiskaltza gorenak erabaki zuen ikertzea zer trataera jasozuten hiru ume (sei, zortzi eta bederatzi urtekoek) haien ikastetxeetan. Aztertu behar zen, hain zuzen, ea ikastetxe horietan gurasoen eskaerei jaramon egin zieten, alegia, umeak beraiek aukeratutako izenekin gelan izendatuak izateko, haien identitatearen araberrako arropa edo uniformeak janzteko eta identitate horrekin lotutako komuna erabiltzeko (Rincón 2013) eskaerei jaramon egin zieten.

Generoaren araberrako komun

erabilerari garrantzi handia aitortzen diote hezkuntza-komunitateko partaide guztiek, ikusten dugunez. Ez soilik aipatutako umeek, baita haien familiek (umeen aukeraketaren alde) eta eskolako autoritateek ere (aukeraketa horren kontra).

Badago hemen zer hausnartu: *queer* filosofiak emakume/gizon binarismoa (alegia, bi generoen arteko dikotomia) arbuiatzen du, eta baita une oro nork bere burua generoaren arabera sailkatzeko beharra ere. Argi dago, baina, eskoletan komun bereziak edukitzeak gaur egun sailkapen hori egitea eskatzen duela eta binarismo tradizionala bultzatzen duela: umeak bere burua generoaren arabera definitu behar du hainbat aldiz egunean zehar, eta beste umeek eta baita irakasleek eta zuzendariak ere –aurreko kasuetan ikusi dugunez– epaitu ahal izango dute ea definizio hori “ondo eginda” dagoen neska/mutil konbentzio sozialen arabera. Horren ondorioz, batzuek jasoko duten mezua honako hau izango da: “Hau ez da dagokizun komuna; eta, gainera, zuk ezin duzu erabaki nor zaren, jaioberritan adituek esleitu zizkizuten sexu eta generora egokitu behar duzu nahitaez”.

Beharrezkoa da hori horrela izatea? Ez da hobe alternatiba osasungarriagoak bilatzea, umeen garapenean genero-presioak une oro ez errepikatzeke?

Ikastetxearen erabakiak

Artikuluaren hasieran aipatutako eskolan hainbat erabaki hartu dira komun berrien diseinuarekin lotuta, horiek erabiltzeko irizpide multzo bat finkatu ondoren. Zein dira irizpide horiek?

1. Haur Hezkuntzako etapan irakasleek ume guztiei irakatsiko diete eserita pixa egiten. Familiekin partekatuko da irizpide hori (familia batzuek etxean beste modu batean jokatuko dutela jakinda ere).

2. Umeak ez du bere burua sailkatu behar komuna erabiltzerakoan. Beraz, ez du balioespenik jasoko eta inork ez du handik kanporatuko toki hori ez dagokiola kontsideratzea-gatik.

3. Esan bezala, neskez gain, mutilak ere eseri ahal izango dira pixa egiteko. Komun horien estalkiak zutik egiten duten mutilek ez zikintzea ere kontuan hartzekoa da.

4. Zutik egiteko aukera ere egongo da, beraz, eserita egin nahi ez dutenentzat.

5. Erabiltzaile guztiak intimitatean aritu ahal izango dira (kaka zein pixa, zutik zein eserita, generoa edozein izanik ere).

6. Komun-aretoa toki segurua izango da. Jakina denez, ikasleen arteko erasoak esparru horretan gertatzen dira maiz (genero-erasoak, bullying homofobikoak eta mota guztietako erasoak...); diseinuak horrelakorik ez gertatzea erraztuko du.

Argi dago, bestalde, komunek erabilgarriak izan behar dutela mugitzeko zailtasunak dauzkatenentzat. Horretaz gain, diseinu berriak zerrrendako irizpide guztiei eman behar die erantzuna. Aurreikusten da, beraz, ez dela egongo generoaren araberrako komun bereizirik (ez da kartelik egongo). Komun-aretoan gelatxo indibidualak jarriko dira, bakoitza bere atearekin; gehienek zoruko ontzia izango dute, eta batzuek paretako pioxontzia. Norberak aukeratuko du bere beharretara hoberen moldatzen den lekua. Guztiek erabiltzeko esparruak –ispilu eta konketenak– ez du bazter ezkurturik izango, erabiltzaileak seguruago senti daitezten.

Ziur asko beste irizpide batzuk eta beste proposamen arkitektoniko batzuk ere egon daitezke. Esperientzia honek balio beza adibide moduan, hausnarketa interesgarri eta ezohikoa den aldetik, agian, beste ikastetxe batzuentzat erreferentzia izan liteke.

Aipatutako bibliografia

BARQUÍN, A. (2014). “Baina mutilek pixa eserita egin dezakete? Maskulinitatea, hezkuntza eta komun erabilerak”, *Kinka* bloga, <http://abarquin.wordpress.com/> 2014-1-15. (Bertsio laburrago bat hemen: *Hik Hasi* 183, 2013, 33-35).

GIMENO, B. (2012). “¿En qué vater entramos?”. *Pikara magazine*, <http://www.pikaramagazine.com/>, 2012-7-5.

GARCÍA, C. (2013). Una niña transexual de seis años gana una demanda civil en Colorado. *El País*, 2013-6-13.

GUZMÁN, P.; PLATERO, R.L. (2012). Passing, enmascaramiento y estrategias identitarias: diversidades funcionales y sexualidades no-normativas. In Raquel (Lucas) Platero (ed.). *Intersecciones: cuerpos y sexualidades en la encrucijada*. Barcelona: Bellaterra, 125-158.

PRECIADO, B. (2013). “Generoa eta zaborra. Pixa egin/kaka egin. Maskulinoa / femeninoa”, *Genero ariketak. Feminismoaren subjektuak*. Gipuzkoa: Edol, 111-117. Ainar Sarasketa Alberdik itzulia. Gaztelaniaz: “*Basura y género. Mear/Cagar. Masculino/ Femenino*” (2006) www.hartza.com/basura.htm.

RINCÓN, R. La fiscalía investiga el trato dado en tres colegios a niños transexuales. *El País*, 2013-10-2.

SUBIRATS, M.; BRULLET, C. (1998). *Rosa y azul. La transmisión de los géneros en la escuela mixta*. Madrid: Ministerio de Cultura e Instituto de la Mujer.

SUBIRATS, M.; TOMÉ, A. (2007). *Balones fuera. Reconstruir los espacios desde la coeducación*.artzelona: Octaedro

SUBIRATS, M. (2013). *Forjar un hombre, moldear una mujer*. Girona: Aresta Mujeres.

VARELA, N. (2008). *Feminismo para principiantes*. Barcelona: BSA.

Zergatik da garrantzitsua hezitzailearentzat ahotsa ongi erabiltzen jakitea



Galdera horri erantzuna ematea erraza eta guztiz logikoa da: lanbide askotan, hezitzaileenean bereziki, ahotsa tresna nagusia izanik, ondo erabiltzen jakitea garrantzitsua baino gehiago, ezinbestekoa da. Soil-soilik osasunaren aldetik pentsatuz, nahitaezkoa dela badakigu. Zure ogibidean ahotsa erabili behar duzun tresna nagusia bada, argi dago zaindu egin beharko duzula (lan horretan luze jardun nahi baduzu behintzat). Gainera, ahotsa gure egunerokotasunean erabiltzen dugu. Ez da “jarri” edo “kendu” dezakegun tresna. Beti gurekin dago. Beti erabili behar izaten da.

Nire ustez, ikasketa-maila guztietan ahotsa erabiltzen irakatsi beharko litzateke. Esan bezala, ahotsa zure bizitza guztian erabiltzen duzu, egunero, eta ongi erabiltzen jakiteak esparru askotan lagundu ahal dizu. Orokorrean, guztiok jakin beharko genukeen zer-bait da.

Osasun arloa aipatuta, ahotsak ere beste mundu erakargarriago batera eramaten gaitu, oso mundu garrantzitsura eta liluragarria: emozioen mundura, hain zuzen. Ahotsean gure egoera emozionala islatzen da eta kudeatzen jakiteak gure itxura guztiz aldatu dezake. Ahots modulatuak, politikak,



Karmele MURO

MUSIKA LIZENTZIATUA. KANTUAN ETA
AHOTSA LANTZEN ADITUA

erakargarriak, tonu egokia erabiltzen denak, etab., gure aurkezpen hobea ematen du eta nahi dugun helburua betetzen laguntzen digu.

Horrengatik guztiagatik, egindako galdera horri irtenbidea emateko hainbat bide daude:

Osasuna eta prebentzioa

Nire asmoa ez da osasuna eta prebentzioari buruz gehiegi luzatzea. Medikuen arloa da eta haiek beste gauza askoren artean, horretarako daude. Eta eskerrak. Nire asmoa arlo honek duen garrantziaz jabetzea da. Askotan beranduegi jotzen dugu medikuarenga-

na eta orduan, errehabilitazioa besterik ezin dugu egin. Kaltea egina dago.

Egia da, ahotsean eragina izan dezaketen arazo batzuk kontrolatu ezinak direla, adibide gisa birus batek sortu ahal dizun laringitisa. Baina ahotsa ondo erabiltzen jakiteak eta prebentzio jarraibide batzuk kontuan hartzeak ahotsaren osasuna zaindu eta arazoak neurri handi batean saihesten lagun diezaguke. Prebentzio gisa, urtean behin medikuarengana jo beharko genuke, aholkuak, prebentzioa eta osasuna zaintzeko profesional egokiena baita. Edozein arazo nabaritzen dugula, medikuarengana jo.

Edonola ere, hementxe dituzue aholku orokor batzuk:

- Urasko edan, gorputza hidratatua mantendu (ura duten jakiak jan). Kontuz berogailua edo aire girotua dagoen lekuetan.
- Ahotsari atsedean denboraldiak eman. Ez hitz egin beharrezkoa ez bada.
- Ahotsa berotzeko ariketak egin. Edozein kiroletan bezala, ahotsa egunero berotu beharko genuke.
- Bolumen egokia eta neurtua erabili. Ez oihu egin, ez hitz egin oso ozen.
- Saiatu zure lepoko giharrak erlaxatuta mantentzen (lepoa erlaxatzeko

ariketa ugari daude).

• Zarata dagoen lekuetan ez hitz egin. Saiatu zarataren gainetik ez hitz egin.

• Eztula, eztarria garbitzeak saihestu.
• Lasai hitz egin.
• Ez erre.
• Alkohola eta edari bizigarriak (kafea, freskagarriak, etab.) gutxi hartu. Edaten dituzun edariak orokorrean ez hotzegiak ez beroegiak izan daitezela.

• Atsedean asko hartu, lo egin.
• Erreflexu "gastroesofajikoa" bazu, lo egiterakoan burko handi goa ipini eta zaindu.

• Katarroak ondo sendatu eta zaindu.

• Ariketa fisikoa egiterakoan ez hitz egin.

• Dieta egokia eraman.

• Hitz egiterakoan gorputz jarrera egokia ezarri. Postura desagokiak eragin handia dute laringean eta zerbikalean.

• Masailezurrean tentsio asko sortzen dira, ez estutu hortzak.

• Lasai hitz egin.

• Kontrakoa badirudi ere, xuxurlatzeak laringean tentsioa eragiten du.

• Tenperatura aldaketa handiak saihestu.

• Emakumeak hilekoarekin ahotsa ez dute berdin. Arreta handia izan behar dute egun horietan eta ahotsa gehiago zaindu.

• Arnasa sudurretik hartzea hobe da.

• Erlaxatzeko momentuak aurkitu, arnasa erabiliz.

Ahots "teknika"

Ahots teknika lerro batzuetan azaltzea ezinezkoa egiten zait. Praktika behar du eta kontuan izan behar dugu gainera, ahotsa erabiltzen jakitea ez dela bi eguneko ikastaro batean barneratzen. Askotan ikastaro "espresak" eskaintzen dira eta benetan emaitzak lortu nahi baldin baditugu, denbora luzez aritu beharko dugu lanean, praktikak egiten, bidea ikasten, sentitzen, esperimentatzen, teknika hori barneratu ahal izateko. Nire intentzioa ahotsaren teknikan landu beharreko hainbat esparruren ideia nagusi batzuk, aholku orokor batzuk, ematea da.

Ahotsa sentsazioen mundua da. Ahotsa erabiltzen jakiteko "teknika" guztia gorputz barruan dugu eta horretarako ditugun sentsazio guztiak "esnatu" behar ditugu, haiei "argazki" bat egin errepikatzeko gai izateko. Horregatik, buruan ditugun ideiak oso inportanteak dira. Gauzak pentsatzeko moduaren arabera, gorputzak emaitza emango du.

Ahotsa erabiltzeko "teknika" ikastea eta barneratzea, etorkizunean arazorik ez izateko baliabidea da. Horregatik osasun arazoak izan baino lehenago egin beharko genuke hori. Ikasketak guztietan, eta adin guztietan, irakatsi beharko litzateke. Nire aldarrikapen nagusienetako bat da. Hezitzaileen kasuan bereziki, derrigorrezko gaia izan beharko luke ikasketei dagokienez. Behin osasun arazoak izanda, lehenengo medikuarengana jo, konponbidea eman (baldin badauka), eta ondoren "teknika" ere ikas daiteke, baina mina jada hartua dago, eta agian muga batzuk betirako izango dira.

Ahotsa "makineria" konplexua eta simplea da aldi berean eta arlo desberdinak jorratu ondoren, denak batera "martxan" jarri behar dira. Betirako barneratua geratzen da. Hortaz, landu beharko genituzkeen alorrak, asko laburbilduz, arnasa eta erresonantzia dira:

Arnasa ardatz nagusia da. Informazio izugarri zabala aurki daiteke arnasari buruz. Nik nahi dudana, arnasa beste modu batean "pentsatzea" da, leku be-

rrera ailegatzeko, ideia "desberdinak" aematea.

Arnasa menderatzen jakitea ahots "teknika" lantzeko lehenengo pausua izan behar duela argi dago. Arnasa hartzerakoan ez da inora eraman behar. Zenbat aldiz entzun dugu: "tripa puztu", "arnasa behera eraman", "beherago", etab. Nire ustez horrek arnasa "ondo hartzearen" ondorioa izan behar du eta ez jatorrizko ideia. Kontrolatu dezakegun gauza bakarra arnasa "ondo" hartzen dugun edo "gaizki" hartzen dugun da. Arnasa gure gorputzean nola sartzen den entzun dezakegu. Ez dugu arnasa "hartu" behar baizik eta arnasa gure gorputzean "sartzen" utzi. Pentsatzen duguna gorputzak egiten du eta buruan jatorrizko ideia arnasa behera eramatearena bada, edo tripa puztearena, horrek ez du bermatuko arnasa kalitate onekoa denik.

Arnasa gorputzean sartzeko, eztarria "libre" egon behar du eta sakon sartu behar da inongo etenik gabe eta inongo itxierarik gabe. Etengabe sartu behar da airea. Hitz egin, esan edo bota behar duguna, arnasa horren ondorioa izan behar du. Hemen, arnasaren abiadura kontutan izan beharko genuke: haserre bargaude, oihu egin behar badugu edo ozen hitz egin, orokorrean arnasa hartzeko abiadura bizkortu egingo dugu, arnasa gorputzean azkarrago sar dadin. Aldiz, bolumen normal batean hitz egiten ari bagara, arnasa lasaigo sartuko da, mantsoago. Eta arnasak sartzen den moduan erantzuten du: az-



kar sartzen bada, azkar aterako da, mantso sartzen bada, mantso aterako da, etab. Hitz egiten dugunean berriz, arnasa ahotsarekin batera ateratzen denez, oso zaila egiten zaigu arnas horren kalitatea kontrolatzea.

Hori dela eta, hasierako arnas ariketak fonaziorik gabekoak izan behar dira. Behin arnas horren kalitatea menderatua dagoenean, (eztarria libre, sakon, etenik gabe, itxierarik gabe, etab.) fonazioarekin hastea gomendatzen da. Ahotsa airearen "gainean" egon behar da eta ez eztarriaren "gainean".

Arnasa behin "menderatua" dagoenean, ondo irteteko lekua egin behar zaio. Gure ahotsa leku egoki batera eramateko, arnasari bidea erakutsi behar diogu. Musika tresna guztiak bezala, gorputza erresonantzia kaxa bat da. Barrunbeak, espazioak, eta erresonantziarako zein bibrazioarako "materia" badugu: hezurra. Hauek guztiak erabilita, gure ahotsa arazorik gabe entzungo da, presentzia handiarekin, garbiki eta eztarria urratu gabe.

Niri aireari bidea erakusten diogula pentsatzea gustatzen zait. Ahotsak gorputzean, hezurra eta espazioa (barrunbeak) dugun tokietan durundatzen eta bibratzen du. Egokiena, ahosabaian, sudurrean (barrunbeetan), masail-alboan, (orokorrean buru osoan) dugun espazioa erabiltzea da. Ahosabaia gorantz (aharrausi txiki bat egingo bazenu bezala) eta sudur hegatsak irekita (usain gozo bat usaintzen ariko bazina bezala), espazio hori egiten laguntzen du eta aireari bidea erakusten dio.

Bi mundu horien arteko konexioan (arnasa eta erresonantzia munduak), beste arlo asko landu beharko liriteke: emisioa, intonazioa, bokalizazioa, ahoskera (bokalak, kontsonanteak), artikulazioa, erritmoa, etenak, inflexioak, esaldi hasierak eta bukaerak, giharren erlaxazioa (lepokoak, mingaina, ezpainak...), laringearen kontrola, etab. Baina hasieran aipatu dudan moduan, ez dut teknikari buruz idatzi nahi, hau guztia praktikarekin erakutsi eta ikasten delako.

Argi dago zati tekniko bat badagoela ahotsaren munduan baina hau bezain garrantzitsua den beste atal bat landu beharko genuke:

Emozioak

Emozioen munduan, guztiz erlaxaturik dauden bi arlo desberdinak nituzke:

- Batetik, emozioek gure ahotsaren duten eragina.

Emozio negatibo (kezka, beldurra, egonezin, buruhauste, ardura, larritasun...) baten aurrean, askotan eztarria itxi egiten zaigu. Txistu gabe geratzen gara. Aire gaizki eta gutxi hartzen dugu. Hori guztiak kontrolatzen ez baditugu arazo fisikoak izan ditzakegu: eztarria urratu adibidez.

Emozio positiboekin (alaitasuna, maitasuna, eskertasuna, onginahia, askatasuna, bakea...) gorputzak beste laisatasun bat du. Arnasa lasai eta etengabe hartzen dugu. Esfortzurik gabe.

- Bestetik, emozioak ahotsaren isla-tzen direnez, guk besteengan izan dezakegu eragina.

Ahotsak pertsonaren identitatea erakusten du. Zure ahotsa bezalakoa bakarria dago munduan. Ahots guztiak ederrak izan daitezke. Ahotsa gure arimaren isla da eta beste pertsona baten arima ukitu dezake. Nola? Zer lortu nahi duzu, pertsona batek zu aditzea edo entzutea? Gerturatu, urrundu, hunkitu, salatu, beldurtu..., egiten gaituzten hitzak badaude. Hori guztiak erabiltzen jakiteak garrantzi handia du nahi duzun mezua modu egokian emateko.

Emozio negatiboaren aurrean, hitzak zatitu egiten ditugu. Urduritasunak harapatzen gaitu eta bota behar dugun hitzaldian, elkarriketan, diskurtsoan, oso nabaria izaten da. Gainera, jarrera negatiboarekin bazaude, zuk aukeratu dituzun hitzak negatiboak izango dira beti.

Erabiltzen ditugun hitzak esaldi positiboak edo negatiboak sortu ditzakete. Baina hori beste mundu baten atea irekitzea da. Adibide gisa besterik ez bada, "galduta nabil" esan beharrean, "bide baten bila nabil" esan genezake, edo "oso nahasita nago" esan beharrean, "irtenbide bat bilatzen ari naiz" esan genezake. Lengoiak badu bere energia eta bere eragina pertsonengan. Hitz positiboak energia positiboa dute eta negatiboek energia negatiboa. Kontuan izateko gaia da.

Lidergoa

Ahotsak, pertsonaren identitatea erakusten du eta bere indarra lidergoaren arrakastarekin lotuta dago zuzenean. Baina zer da benetako lidergoa? Nola lagundu ahal dio ahotsak lidergoari?

Nik lidergoa trebetasun bat dela usent dut. Lidergoa arte bat da. Benetako liderrak nahi dituen helburuak lortzeko, taldea bideratu behar du. Baina ez edozein modutan. Talde horrek helburu horretan sinestea eta helburu hori lortu nahi izatea da liderraren lana. Amets eta helburu baten diferentzia bakarra, prozesua da. Sinetsi horretan eta lortuko duzu.

Ahotsak eta lengoiak erlazio handia dute honetan. Ahots sendo batekin inflexioak dituenak, modulatu dakienak eta egoeretara egokitzen denak, kemen, indar, eta presentzia handiago du.

Lengoiak positiboa eta sortzailea erabiltzea oso garrantzitsua da. Lehen esan dudan moduan, esaldiak bi modutara esan daitezke eta hori ere ikasi egin beharko genuke. Erabiltzen ditugun hitzak, lengoiak eta hitz egiten dugun tonuak eragin handia dute.

Abots bakoitzak bere musika du. Pertsona guztiok melodia bat dugu. Hitzek dantza egiten dute. Abots teknika menperatzeak zenbat laguntzen duen azpimarratu nabiko nuke. Pertsona guztiok abots polita eta bakarria dugu, eta abots horren distira atera behar dugu. Zenbat eta abots landuagoa izan, orduan eta kolore gehiago atera ahalko dizkiogu. Zenbat eta arnas kontrolatuagoa izan, arnas eta abots libreagoak izango ditugu eta larritasun egoeretan aurrera ateratzeko gai izango gara.

Abotsak gure onena edo txarrena atera dezake, zer nahi duzu?


argitalpenak



Gauoko sukaldean

Maurice Sendak

Itzulpena: Manu Lopez Gaseni



Hartz marmartia

B. Ibarrola / J.L. Navarro

Itzulpena: Miren Agur Meabe



Hodei baten bidaia

E. Zenarrutzabeitia eta

A. Gorostiza / A. Garcia

PAMIELA-KALANDRAKA

Entzun duzu inoiz Mikelen istorioa, nola gauean zalaparta bat entzun zuen eta oihukatu zuen: "Isil zaitzete!", eta iluntasunean barrena murgildu zen, biluzturik, ilargitik eta amaren eta aitaren lozorrotik harago gauoko sukaldearen argitasunean erori zen arte. •

ELKAR

Bitxia zen basoan gertatzen ari zena. Anartz hartza atsegina zen lehena-go, baina azken aldia umore txarrez zegoen, beti marmarka eta oihuka. Basoko animaliek batzarra antolatu zuten Anartzaren arazoa zein zen argitzeko. Haserreari buruzko ipuina da, "Sentipuinak" bildumakoa. •

GIPUZKOAKO DIPUTAZIOA

Haurrak zein helduak aniztasunean sentsibilizatzeko disko-liburua da. Liburua, batez ere, 7 eta 11 urte arteko haurrentzat da, eta diskoa, adin guztientzat. Besteak beste, Francis "Doctor Deseo"k, Gozategik, Xabier Solanok edota Kodigo Norteko abeslariak hartu dute parte. •



Mezutxoa botilan

'Muxote Potolo bat' egitasmoa



Ostiral

Santiago Freire / Dani Padron



Printzesa eta ilartxo

H.C. Andersen / Miss Clara

MEZULARI

Itsasora botatzen dugu botila hau. Zuregana irits dadin. Pertsona berezia zarelako. Itzela. Muxote Potolo Bat muxu berezi eta goxoa da, jasotzen eta ematen den bakoitzean gure arima pizten duenetakoa. Koloreen, hitzen, marrazkien eta lagunen topagunea da, eta emozioak adierazteko txokoa izan nahi du. •

SUSHI BOOKS

Tribuko buruzagiaren aginduak bete ez zituela eta, epaitu egin zuten protagonista. Hurrengo hiltbetean jainkoen eta jainkosen eskaintza izatera kondenatu zuten. Iritsi zen eguna. Oinak eta eskuak lotuta, alboko uhartera eraman zuten sakrifizikatzeko. Erritua prestatzen ari zirela, sokak askatu eta ihes egitea lortu zuen. •

IBAIZABAL

Gizon gazte batek benetako printzesa bat aurkitu nahi du, harekin ezkontzeko. Egunduean neska bat agertzen da jauregian eta benetako printzesa dela esaten du. Erregina ez dago guztiz ziur, eta bere kontura egiaztatzea erabakitzen du. Horretarako, ilartxo bat jartzen du neska oheko lastaira azpian. •

hik hasi-ren proposamena

IRRIEN LAGUNEN UDALEKUA

Balio hezitzaileak ondo pasatzeko

Martinber, Marikalanbre, Largabista eta Tiritatxo Irrien Lagunen Klubeko pertsonaiekin eta Porrotx pailazoarekin batera astebete igarotzeko udalekuak antolatu dituzte Irrien Lagunen Klubak eta Aldabe Kooperatiba Elkarteak, Zeraingo Irrien Lagunen barnetegian.

Bost eta hamar urte arteko haurrek ekainaren 29tik uztailearen 6ra bitartean naturaz, kulturaz, osasunaz

nahiz inguruneaz gehiago jakiteko, gozatzeko eta maitatzeko aukera izango dute Zerainen (Gipuzkoa) Irrien Lagunen Udalekuan. Martinber, Marikalanbre, Largabista eta Tiritatxo Irrien Lagunen Klubeko pertsonaiekin batera, eta hezitzaileak lagun, hamaika jarduera egin ahalko dituzte eta baita jende berria ezagutu ere.

Astebeteko tartean eztingintza, arztaintza, zurgintza, ogigintza, etab. ezagutu ahalko dituzte haurrek eta jarduera horietan zuzenean parte hartzeko aukera izango dute. Horrez

gain, bestelako esperimendu, hezkuntza-jarduera eta aisialdi ekintzak ere egingo dituzte; hala nola, euskal mitologia ezagutu, euskal dantzak ikasi, ur jolasak, gamusinoen gaua, antzerkia, karaokea, pizsinara, erre-kara nahiz mendira joan, etab.

Hori guztia helburu nagusi batekin: haurrek ondo pasatzea, disfrutatzeta. Baina bide batez, hainbat balio hezitzaile oinarri hartuta: laguntasuna, elkartasuna, osasuna, ingurumena, sormena, kultura... Eta noski, hori guztia euskaraz.



Barnetegia

Zeraingo herri-guneko Harizti-Er-di aterpetxean dago Irrien Lagunak Klubeko barnetegia. Bertan, uda partean udalekuak antolatzeaz gain, ikasturtean zehar, Irrien Lagunak Klubeko pertsonaiak gidari, asteburuetan familia-taldeak hartzen dituzte, eta astean zehar ikastetxeentzat egonaldiak antolatzen dituzte. Zeraingo Paisaia Kulturala ezagutzeaz eta bertako natur inguruneaz gozatzeko aparte, hainbat ekintza antolatzen dituzte hurrek zein helduek ondo pasa dezaten.

Euskal Herriko haurren eta haien hezkuntza prozesuaren bidelagun izatea du xede Irrien Lagunak Klubak. Gurasoek, hezitzaileek eta hezkuntzaren alorreko eragileek gain, haurren heziketaren ardura gizarte osoarena dela uste baitu. Horrexegatik, eskolan eta familian ez ezik, denbora librean, kalean, auzoan nahiz herrian hurrei balio hezitzaileak transmititzen saiatzen da.



Irrien Lagunak Klubaren udalekua:

- Non: Zerainen (Gipuzkoa).
- Noiz: ekainaren 29tik uztailaren 6ra (biak barne).
- Adina: 5 eta 10 urte arteko haurrentzat.
- Izena emateko epea: maiatzaren 31 arte.
- Prezioa: Irrien Lagunen Klubeko txarteldunek 225 €, eta gainerakoek 270 €.
- Informazioa eta matrikula: 943 80 01 85 edo 943 80 15 05 eta irrienlagunak@aldabe.com
- Harremanetarako pertsona: Miren Makatzaga





Asier ALTUNA

ZINEMAGILEA

Nota onak ateratzen nituen ikasle txintxoak eta oso lotsatia nintzela gogoratzen dut eskola garaitik. Matematika klaseetan zirriborroak marrazten nituela ere bai. Nire alde arrazionalak, letra polita egin eta koadernoak garbi mantendu nahi izaten zuen, batez ere, ikasturte hasieran. Nire alde aurrerakoi eta sutsuenak, aldiz, koadernoak zirrimarraz zikindu.

Borroka horretan jarraitzen dut oraindik ere. Zirriborroak egiten, jolasean. Suerte handiz uste dut gainera. Zenbat zirriborro, kontu, apunte, marrazkitxo, periodikoetako erreporte, gogoratutako amets... koadernoetan. Eta zein baliagarri izan zaizkidan gero batzuk gidoiak idazterakoan, istorioak sortzerakoan. Memoria txarrarentzako erremedio ona.

Zirriborroak matematikako koadernoetan

Bestalde, ikastolako hezkuntzak baino askoz eragin handiagoa izan zuten, nik uste, ikastolatik kanpo jasotako estimuluek.

Baserrian jaioa naiz, batetik. Orain jabetu naiz bizitzan inportanteak diren gauza asko ikasi ditudala bertan; bizitza filosofia, lanerako konstantzia, uza jasotzen ari zarela jada beste hazi batzuk ereinda izaten dira han. Eta naturaren indar hori. Biziala hil.


Erreferentziak, bestetik. Izeba Arantxa zenak kontatu zizkidan ipuinak... Berari zordiot nire lehen bideo-kamara ere. Eta lehengusu, Joxan Iza, margolaria. Zenbat solasaldi arteari buruz! Zenbat buelta berak lagatako marrazki liburuari! Biei esker jarri nuen begirada artean, sormenean.

Gaztaroan, Bergarantxotxongiloen inguruko giroak, kultur usainak, liluratu ninduen. Herrian bertan txotxongilo soil batzuekin Drakula antzezteko gaitasunak. Formatu txikian gauza handiak egiteko aukerak. Nik uste, beste edozerk baino gehiago, horrek bultzatu ninduela sortzaile izatera, errealitatea eraldatzeko ahalmenak, irudimenean daukazuna bi-

ziarazteko aukerak.

Orain, guraso bihurtu naizenean, egiten dut gogoeta garai haietaz. Orain jarri dut arreta eskolan, hezkuntzan, eta, egia esan, beldurtu egiten naiz askotan. Pozik kontatzen didate irakasleek, lau urteko alabak zein ondo ikasi duen markatutako mugen barruan margotzen, baina, ez dakit hori ona edo txarra den. Harro esaten dizute zein txukun eta zuzen idazten ikasi duen, ez duela orria zirriborroekin lardaskatzen. Eta gelako hormara begiratu eta 20 marrazki berdin berdinak ikustean, alaba bertatik atera eta etxera eramateko gogoak jartzen zait.

Baina gero konturatzen naiz eskola bizitzaren parte bat besterik ez dela. Eta eskolatik kanpo zirriborroak egitera bultzatzen ditut, apurtzera, amestera, sortzera. Eta saiatzen naiz bizi garen ingurune hori erakargarria eta berezia bihurtzen. Estimulu kulturalak betetzen, telebista zatatsua itzali eta ipuin, istorio eta antzerkiak betetzen. Saiatzen naiz egunero bizitzen. Agian pentsatuz egunen batean, bizi dugun hori, egiten dugun horrek, besteren bati zerbait berria sortzeko eragingo diola.



"Baloreen irakaskuntza ez da esanez egiten, baizik eta norbera eredu izanez".

Abel Ariznabarreta

Euskal Herrian gure hezkuntza eraiki!



LOMCEri EZ!

Euskal Herrian behar eta nahi dugun hezkuntza eraikitzeko orduan, hainbat hezkuntza eragilek ondorengo ardatzak hartu nahi ditugu kontuan, ikastetxeetako ikasleekin, familiekin eta langileekin nahiz herritarrekin batera landu eta garatzeko:

**Ikasleen garapenerako beharrak eta eskubideak bermatuko dituen heziketa integrala ziurtatu (pertsonez, inklusiboa, hezkidetzalea, kritikoa, laikoa...) eta horretarako behar diren baliabide guztiak izango dituen.*

**Ikasle euskaldun eleaniztunak sortuko dituen.*

**Curriculum propioa izango duena.*

**Ikastetxeen autonomia, parte-hartzea eta funtzionamendu demokratikoa bermatuko dituen.*

LOMCEri aurre egiteko nahiz gure hezkuntza propioa eraikitzeko, ezinbestekoa da hezkuntzan dihardugun guztion inplikazioa, baita herritar ororena ere. Horregatik, ikasturte honen bukaerarako eta datorrenerako zenbait ikastetxetan eta herritan antolatuko ditugun ekimenetan parte hartzera del egiten dizuegu.

Guztion artean lor dezakegu!



**0 - 3 urte bitarteko hezitzaileentzako
250 ordutik gorako prestakuntza
(2. promozioa: 2014-15 eta 2015-16)**

Lehen promozioaren erantzun baikorra ikusita, 2. aukera eskaini nahi dugu. Hiru oinarri nagusi izango ditu formazioak:

- **Emmi Pikler** (koordinatzailea: Juanjo QUINTELA)
- **Loris MALAGUZZI** (koordinatzailea: Alfredo HOYUELOS)
- **Formazio pertsonala** (koordinatzailea: Alvaro BE ARAN)

Ikaslerro bakoitzean, gaien adituak diren Euskal Herriko nahiz kanpoko hezitzaileek emango dute prestakuntza.

Informazio osoa eta izena emateko aukera
www.hikhasi.com helbidean